

uk

168. zenbakia / 2010eko urtarrilaren 4a



I Concurso de pinchos GetxOnegin I. Pintxo lehiaketa

Abenduak 19/20 diciembre

Eskerrik asko
parte hartu
duzuen guztioi!

> Pintxo goxo-goxoak prestatu
dituzten 23 taberna eta jatetxe

La Bodeguilla Butron • The Piper's Irish pub •
Bar Serrano • Sustrai taberna • Baseri taberna
• Tellagorri jatetxea • Garai taberna • Aterpe •
Batzoki taberna • Amabxo Maitea taberna •
Ugartena jatetxea • Lorea jatetxea • Akeita •
Goikoa • Cafeteria Cosmopolita • Cafeteria Rio
• Areetako Batzokia • Gure etxea taberna •
Arotza taberna • Baste taberna • Glass
kafetegia • Jolastoki jatetxea • Bizargorri

> Puntuazioa eman duten
3.500etik gora getxotar




Basalbo jatetxean bi pertsonentzako afariaren irabazlea:

Javier Ruiz de Angulo
(pintxo Gure Etxea tabernan jan zuen)

Argazki eta pintxo guztiak www.getxo.net webgunean

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu,
Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurolo,
Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA:
900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Areetako merkatua.
7. LEHEN ETA ORAIN. Sopolako eliza.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Idoia Loroño.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopolana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. *GetxOnegin* pintxo txapelketa.
28. ARGAZKIA. Olentzero 3D.
30. BERBETAN. Aurora Lago.
34. FOTOGRAFIA. Itoiz Navarro.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *Espartigus Agudo* film laburra.
43. MUSIKA. *Siroka*. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Liburu digitalak. Erreseinak.
45. KIROLAK. Kirol saila Gorlizen.
46. ELKARRIZKETA. Iñaki Friera.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Prost Delicatessen, Algorta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Sopolako Markaida Maurika familia, 1934.
54. AITORMENAK. Marimotots.

Azala: Itoiz Navarro



30 Aurora Lago

Berbetan

Kurduen bilakaera historiaz eta gaur egungo egoeraz luze berba egin digu Aurora Lago.



11 Idoia Loroño



54 Marimotots

RENAULT

bai

www.renaultleioa.com

Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

Bisita egizu gure web berria eta hartu **txanda on-line**

www.renaultleioa.com



euskarak asetzen gaitu
el euskera nos llena

Iritzia

Oraingo honetan, gu-geuk bete dugu "Iritzia" atala. UK-kook ere badaukagu zer esan eta zuri zuzendua dago gure mezua.



20 euro baino ez

Urtero bezala, urtea aldatzeagaz batera, urte barrirako asmoak aukeratzen ditugu. UK aldizkarian, ez ditugu erretzeari uztea edo kirol gehiago egitea bezalakoak aukeratu; baina, gurean ere baditugu urte barrirako ideia interesgarriak.

Komunikabidea garenez gero, komunikatzea eta mezua zabaltzea dugu helburu nagusia. Gure kasuan, Uribe Kostan gertatzen direnak edo gertatuko direnak di-ra mezu garrantzitsuena. Horrez gain, gure aldizkaria "ikusgarriago" egiten laguntzen duten argazkiei tartea egiten diegu hamabostero, zuen gustukoak izango direlakoan. Azken urtean, paperekoagaz konformatu ez eta eskualdeko kultur eskaintza euskalduna zugana heltzeko, *ukagenda*

jarri dugu martxan. Hori gutxi balitz, 2009an *Getxo akordaten naz* dokumentala azpigitulatu dugu (gura duenak gure bulegoan har dezake doan!). Eta laster, UK-ren web gune barria bisitatu ahal izango duzu. Bai aldizkaria eta bai aurrera eroaten

«UK-ren Olentzero izan eta ekarpena egin zenuten guztioi, mila esker! »

ditugun beste egitasmoak ere, ahalik eta txukunen egiten saiatzen gara; eskualdeko euskarazko aldizkari bakarrak, duintasun minimoa merezi duela uste dugu. Horretarako, gisa baliabide zein baliabide material asko behar ditugu: zuzentzailea, inprenta,

maketatzailea, banaketa, ordenagailuak, kazetariak e.a. Ate asko jo behar izaten dugu horiek guztiak lortu ahal izateko: Udalenak, Eusko Jaurlaritzarenak, Bizkaiko Foru Aldundiarenak, publizitate bezeroenak e.a. Horien guztien laguntza bihotzez eskertzen badugu ere, ez da nahikoa sortzen zaizkigun gastu guztiei aurre egiteko.

Zuetako asko musutruk jasotzen duzue UK etxean; baina, musuak garestitzen hasi dira gurean. Edo hobeto esanda, merketzen, oso merke jartzen baitugu gure hamabosteroko papereko musua.

UK-rentzako Olentzero izatea proposatu genizun aurreko alean. Zuetako askok primeran erantzun duzue, eta dagoeneko, gugaz harremanetan jarri edo dirua gure kontu korrontean sartu duzue. Eskerrik asko guztioi! Baina oraindino, bazarete asko eta asko 20 euroko kuota minimoa ordaintzen ez duzuenak. 20 euro urtean, hori da duintasunez behar egiteko eskatzen dizuguna. Zuretzat ahalegin txikia dena, ekarpen ikaragarria da guretzat.

Gure kontuan sartu edo gugaz harremanetan ipini eta zure datuak eman besterik ez duzu. Baina, ez ahaztu izen-abizenak jartzeaz, nor zaren jakin dezagun.

Aldez aurretik, eskerrik asko!

Urte barri on!

Kontu korrontea:
BBK: 2095 0022 00 9102483676

UK aldizkariko lantaldea

gu geu**Urte barri on!**

"Urte barri, karri-karri; dekonak ez dekonari; nik ez dekot eta niri ekarri; ezpara be txarri belarri! Urte zaharra joan da, barrixe etorri; ni banoa eta agur guztiori, eup!" Etkez etxe kantuka, dirua batzen ibiliko zineten gabonotan, UK-ren Olentzero izan zarete beste asko ere. Eskerrik asko!

Urtea igaro da, bai, urte latza krisia dela eta ez dela (halere, krisia aspaldi iritsi zen, ez da izan gauza barria). 2010ari gogoz ekiteko unea dugu orain, asmoak barritzekoa. Gogotsu ekingo diogu UK-ko lagunok ere, eta horretarako, atsedenaldira txikia hartuko dugu, baina otsaila arte soilik. Aste batzuk barru iritsiko zaizu hurrengo zenbakia, urte barriari martxa hartuta. Bien bitartean, har ezazu 168. hau, bertsoz, pailazoz eta irriz beteta dator eta: Maialen Lujanbiori bertsoak jarri dizkio Jone Uriak (zorionak txapeldun!), Marimototsek sekreturen bat kontatu du eta Aurora Lagok ekarri du kurdutar herriaren egoeraren barri, beraz... Jarri, irakurri, gozatu... eta urte barri ona izan! Laster arte!

UK-ko lantaldea



Areetako azokari agur! / Postuz postu erosi izan dugu fruta, okela, ogia eta esnea, egunerako beharrezkoa, egunero. Zuzenean erosi izan diogu Merte arrain-saltzaileari, Juan Mari harakinari edota Patxi okinari herriko merkatuan, betiko azokan. Orain, ordea, Eroski harakinari edota Carrefour fruitariari, eta geroz eta urriagoak dira herriko merkatuak. Areetakoak laster esan behar digu agur, urtarilaren 16an itxiko dute, betiko. Hona gure omenaldi xumea urteetan gure beharrek aldarre onez ase dituzuen beharginci. Aupa zueki! O / Argazkia: Asier Mentsaka

ARGAZKI ZAHARREN ERAKUSKETA

Algorta eta Getxoko argazki zahar gehiago lortu ditugu,
baina batzuk ez dakigu nongoak diren.

Zure laguntza behar dugu, etorri erakusketara
ALGORTAKO AZOKAn.

Urgull kalea
Urtarrilaren 5etik 19ra
8:00-14:00/17:00-20:00



[lehen]



INDALECO O'WAGGUREN

[orain]



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / SOPELANAKO ELIZA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > txapeldunari



2009ko abenduaren 13a, BEC (Barakaldo)

Testua: **Jone Uria** / Argazkia: **Bertso Txapelketa Nagusia**

* Doinua: *Martxa baten lehen notak*

Gogoratzen naiz lehengo finalez giroa goietan goren, gogoratzen naiz gaurko finalaz ahalik eta ondoen: zortzi txapeldun ez, bederatzi Joxe igo (e)ta ondoren, (e)ta epaimahaiak erabakita gero txapelduna nor den lehen emakume txapeldun zara baduzu nahiko ahalmen, askorentzako erreleboa zara gainera nabarmen; baina nola hori dena baino gehiago ere bazaren zuk jantzi duzu txapela eta mila zorion Maialen.


Zorion pila jasoko zuen nire eta besteena, asko aldatu baita itxuraz txapelketako sistema. Andoni lau txapelen jabe da ez da izango bostena, Maialenentzat lehena zena Egañarentzat azkena. Han ikusi zen erreleboa besarkadaren eszena, baina merezita aldatu da orain arteko eskema. ez baita edonolako neska hara nire miresentzara, hamabost mila lagun batera hunkitzeko kapaz dena.

Eta hori dena gutxi balitz zerbait gehiago bazela, argazkikoa ez al zen izan hunkigarria, itzela... hara ze(in) gizon handik jantziko zion gainera txapela: Joxe Agirrek ze(r) kategori(a) eta zelako nibela zer esan ba omen zeukan eta ezin isildu horrela; a ze(r) lau bertso, ze(r) lau ideia sendo bota zituela. Denen aurrean argi utzita askok dakigun bezala, txapelik inoiz jantzi ez duten txapeldunak badirela.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai lezaguazu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Eskerrik asko zure ekarpenagatik!

2010eko harpidetza kuota **otsailaren 15ean** pasatuko dugu zure kontu korrontetik.



tokikom > euskarazko tokiko hedabideon bilgunea



Tokikom egitasmoaren aurkezpena, abenduan

Hamarkada bi dira euskarazko herri hedabideak sortzen hasi zirela, tokian toki, euskararen normalkuntzan ekarpena egin guran. Bide horretan beste urrats bat egitera gatzoz horien artean aldizkari batzuk: Tokikom marka bateratua, aldizkarien elkarlana eta talde izaera azpimarratzeko. Topagunean federatuta gauden euskarazko tokiko aldizkariok osatzen dugu, gure ezaugarri eta balio komunak batzen ditu. Proiektuaren asmoa da hedabideon talde izaera eta kohesioa indartzea. Anitzak gara, baina badira ezaugarri komunak; horiek azpimarratzera eta indartzera dator Tokikom, baita elkarlanerako bideak zabaltzera ere, guztiok batuta 220.000 irakurle daukagu eta. Webgunea abiatu dugu (www.tokikom.com), eta bertan ikus daitezke aldizkari guztien titularrak. Beste 19 aldizkarik osatzen du UKgaz batera, Txorierriko Aikor! edota Deustuko Prest, barbarako. ○

egunkaria libre! > eman zure atxikimendua




Euskaldunon Egunkariaren alde batu ziren hainbat lagun Algortan, abenduaren 11n

Bost auzipetuakaz eta Euskaldunon Egunkariagaz elkartasuna adierazteko atxikimendu kanpaina egiten dabilta internet bidez, www.egunkaria.info gunean. Duela zazpi urte itxi zuen Guardia Zibilak euskarazko egunkaria, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz. Abenduaren 15ean hasi ziren epaitzen, auzitegi berean, egunkariko bost langile. Egun biko saioen ostean, urtarrilaren 12ra arte atzeratu zuten epaiketa. Orain dela zazpi urte bezala, jendartearen elkartasuna eta erantzuna tamainakoa izatea gure dute, horregatik abiatu zuten atxikimendu kanpaina eta hainbat hitzaldi, elkarretaratze eta manifestazioak burutu Euskal Herri osoan. Horietako handiena izan zen abenduaren 19koa, Bilbon. ○

saiazgetaria



Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaia...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

presoak > aurrez aurreko bisitarik barik lotu dira eskualdeko asko



Busti zaitez ekimena 2006ko urrian, Algortako Portu Zaharrean

Espetxera senideak ikustera joan eta sartu ezinik lotzen ari da ehunka euskaldun, duela hiruzpalau hilabete, Espainiako Espetxe Zuzendaritzaren neurriei uko egin ostean. Aurrez aurreko bisitetara sartzeko bisitariak miatzeko agindu du. Baina Etxeratek, euskal preso senideen elkarteak, “*katxeo eta umiliazio saiakeratzat*” jo ditu “*muturreko egoera*” horiek. Neurri gero eta “*larriagoak*” jazotzen dabilzala salatu du. Horien artean, ume txikiak katxeatu eta senide zein lagunak paretaren kontra jarri gura izatea, biluztarazteko aukera adierazten duten kartelen ezarpena, elbarri bat muleta barik utzi eta prakak kentzera derrigortzea edo senideak hilabete bi espetxean ez sartzegaz mehatxatzea. Getxoko Arkaitz Goikoetxearen amari gertatu zitzaion azken hori. Eskualdeko hainbat preso lotu dira aurrez aurrekorik barik, berbarako: Irantzu Gallastegi eta Patxi Markes berangoztarrak eta Txetxu Fernandez algortarra. ○

getxo > tratu txarrak jaso dituzten emakumeentzako harrera protokoloa



Abenduaren 21ean sinatu zuten protokoloa

Etxean tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko I Tokiko Protokoloa sinatu dute Getxon Bizkaiko Herrialdeko Fiskal Nagusiak, Justizia eta Administrazio Publikoko saileko Justizia zuzendariak, Getxoko Ertzain etxeko Komisario Nagusiak, Abokatutzako Euskal Batzordeko bozeramaleak, Osakidetza Urbe-Eskualdeko zuzendari kudeatzaileak eta Getxoko Berritzeguneko zuzendariak eta bertako alkateak. Hainbat konpromiso hartu dute erakundeek protokoloa sinatzeaz batera: balizko lege haustean Protokoloari egokitu, Protokoloa erakundeetako langileen artean zabaldu, heziketa plangintzak abiatu eta bere edukia indarrean jartzeko baliabideak ahalbidertzeko eta Jarraipen Batzordea abiatzeko. ○

[erretratua]



“Saria niri eman didate, baina nigaz elkartean dauden lagun guztientzako da; euren laguntza barik ezin izango nuke AHIDA aurrera atera”

Idoia Loroño > AHIDA elkarteko presidentea

Musutruk eta bihotzez egindako beharragatik saritu dute Idoia Loroño; Getxoko Udalak pertsona boluntarioari emandako saria jaso zuen joan den urteko abenduan. Hamar urte pasa dira Arretaren gabezia eta Hiperaktibitatea duten lagunak eta euren ingurukoak laguntzen dituen AHIDA elkarte sortu zuenetik. Bere semeari gaitza diagnostikatu ziotenean hasi zen hariak mugitzen: “*Ingurukoek ez zuten gertatzen zitzaidana ulertzen eta horregatik hasi nintzen beharrean. Arazo batetik aukera barria sortu zitzaidan*”. Egoera berdinean zeuden beste ama bi ezagutu eta Urgullera deitu zuten jendea: “*Gela bete genuen lehenengo bilera hartan. Horrela, gura barik eta lan boluntarioari buruz ezer jakin barik, elkarte sortu genuen*”. Gaur egun 400 bazkide ditu elkarteak eta laguntza eskaintzen du esparru ezberdinetan: “*AGNH gaitza zer den ezagutarazten elkarrekin egin dugun lana oso garrantzitsua izan da; orain jendeak ez du pentsatzen gaitza duten umeak urduriak direnik beste barik*”. Izerdi asko bota behar izan badu ere, elkartean egindako beharrak asko eman dio Loroñori: “*Eman dudana baino gehiago eman dit. Batzuetan gogorra egiten da, baina maitasunagaz dena lortzen dugu*”. Borroka horretan ez da bakarrik egon: “*Saria niri eman didate, baina elkartean nigaz beharrean daudenez ere bada; euren laguntza ezinbestekoa da*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Pientzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es



BARAKALDO · BILBAO · GETXO · ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Udal Etxebizitza Plana adostuta

EAJk eta PSEk adostu dute plana; datozen **5 edo 6 urteetan** garatuko da, guztira **918 eta 1.279** babestutako etxebizitza eraikitzea dago aurreikusita

Gizartearen etxebizitza eskaera ahal den heinean betetzea da Udal Etxebizitza Planaren helburu nagusia. Bost edo sei urtetan garatuko da, eta 918 eta 1.279 arteko babestutako etxebizitza eraikitzea aurreikusita dago. Horiek, errentan, azalera-eskubidean edo jabetzan emango dira.

EAJ eta PSE alderdiek adostuta onartu da Udal Etxebizitza Plana. Datozen 5 edo 6 urteetan garatuko da, eta guztira, 918 eta 1.279 babestutako etxebizitza artean eraikitzea aurreikusita dago (BOE eta etxebizitza tasatuen artean). Planaren helburu nagusia, gizartearen etxebizitza eskaera ahalik eta gehien asetzea da. Imanol Landa Getxoko alkateak planaren aurkezpenean esandakoaren arabera, 14 ekintza bultzatuko dituzte "behar eta zailtasun handiagoak dituztenek, batez ere 35 urtez azpiko gazteek, etxea errazago lor dezaten"; horretarako, "baliabide publikoak maximizatzea ahalbidetuko duen etxebizitza parke txandakakoa egingo dute". Gainera, etxebizitza libreak eta babestuaren arteko aldea murrizteko, etxe salerosketan eragin handiagoa izaten saiatuko dira.

Hiri-lurzoruan etxebizitzak egiteko Udal Plangintzan jasotako lehen jardunbidea, Alango auzoari (Algorta) dagokiona da. Bertan, gitxienez 150 etxebizitza babestu egingo dituzte 2010-2012 urtean artean; horiek, 35 urtez azpiko gazte-



Alango auzoan gitxienez 150 babestutako etxebizitza egingo dituzte

ei errentan emateko izango dira.

Alangokoez gain, San Nikolas, Zubilleta, Sarrikobaso, Ormaza, Konporte, Iturribarri II eta Venantzion egingo dira etxebizitza babestuak: Zubilletan 300, Konporten 107, Iturribarrin

«Alango, San Nikolas, Zubilleta, Sarrikobaso, Ormaza, Konporte, Iturribarri eta Venantzion egingo dira etxeak»

156, Ormazan 112 eta Venantzion 23. Horiekaz batera salerosketa askeko etxebizitzak eraikiko dituzte.

Aipatutako etxebizitza babestuak, errentan, azalera eskubidean (gehienez 75 urtez) edo jabetzan emango dira. Horiek eskuratzeko ezinbesteko baldintzak dira erroldatzearena, diru-sarre-

rena eta etxebizitzaren beharrarena. Babes Ofizialekoetan Eusko Jaurlaritzaren legedia aplikatuko da eta tasatuetan, barriz, udal ordenantzan jasotakoa.

Lehentasuna izango dute 35 urte arteko gazteek; adin txikiko umeak beren kargura dituzten familia ugariak; ezintasunak dituzten pertsonak eta euren familiak; 65 urtetik gorakoak eta euren familiak; genero indarkeriaren eta terrorismoaren biktimek eta gizarteaz baztertzeko egoera izan edo arriskuan daudenek. ○

Datu batzuk

- **1.279:** etxebizitza babestu gehienez.
- **Zortzi:** zonaldean banatuta.
- **Bost edo sei:** urte beharko dira plana garatzeko.

2012ko 2. seihilekoan

zabalduko ditu ateak Romoko Kultur Etxe barriak



Santa Eugenia eskoletako eraikina bota eta barria egingo dute

Datorren urte erdialdera hasiko dira Romoko Kultur Etxe barria eraikitze lanak, eta dena ondo joanez gero, 2012ko bigarren seihilekoan amaituko dituzte. Gobernu Taldeak legegintzaldi honetarako daukan egitasmo handienetakoa da Romokoa eta udalerraren "barritze prozesuaren" barruan kokatu dute. Santa Eugeniako eskoletako eraikin zaharra bota, eta orube horretan, sei solairu eta 4.000 metro koadro izango dituen eraikin barria altxatuko dute. Udal iturriek esandakoaren arabera "Romok bizkortzeko eta auzoa Areetan integratzeko" balio izango du eraikin barriak.

Aitor Elorduy eta Gabriel Chapa arkitektoek diseinatu dute Kultur Etxe barriaren proiektua. Punta Galeako

itsaslabarren itxura hartuko du kanpotik eta funtzionaltasuna lehenetsiko du. Barruko diseinua erabat finkatu barik utzi dute; izan ere, eraikin barriaren behar egingo duten elkarten proposamenak kontuan hartu gura dituzte behin betiko diseinua finkatzeko. Hala ere, izango dituen oinarritzko ekipamenduak zeintzuk diren aurreratu dute: 200 lagunentzako auditoriuma, kontzertuak, batzarra eta ikastaroak egiteko aretoak, entseguetarako gelak, erakusgela, udalerriko liburutegirik onena, umeen jolasetarako guneak eta Kultur Etxearen eta Herritarren Arretarako bulegoak.

Urtarrilaren 5a arte, proiektuari buruzko erakusketa ikusgai egongo da Getxolandiako karpan; 5etik aurrera, Santa Eugenia ikusi ahal izango da. ○

105 PLAZA IZANGO DITU SAN NIKOLASEKO APARKALEKU BARRIAK

Datorren urteko uda aldera hasi eta 12-14 hilabetetan amaitu gura dituzte San Nikolas plazaren azpiko, Basagoiti Etorbidea eta Andres Cortina kaleen artean, parkinaren lanak. 105 plaza izango ditu auzokoen zatitza, horietako 14 ezintasunak dituzten pertsonentzat. Gobernu taldea Algortako auzoan bizi direnei plaza horiek zelan eman aztertzen ari da. Guztira, 5.736 metro koadro izango ditu lau solairutan banatuta (bat instalazio ezberdinak hartuko dituen solairu tekniko izango da). Lehenengo solairua, Getxo Antzokiaren barruko gauzetarako erabiliko da; gorengo beste biak auzotarrentzat izango dira. Plaza, lurpeko aparkalekua zabaldu aurretik erabilgarri izango dute herritarrek.

ARRAPALA MEKANIKOA ALANGORA IGOTZEKO

Aurten hasiko dira Euskal Herria kalea eta Alangoko zonaldea lotuko dituen arrapala mekanikoa egiten. Auzokideen eskaerei eta Osakidetzako anbulatorio barriaren beharrei erantzunez egingo dute arrapala. Bestalde, aurreikusitakoaren arabera, urte hasieran erabiltzen hasi ahal izango dira Aiboako eta Villamonteko igogailuak.

SANEAMENDU SAREA HOBETZEKO 10 PAUSO

Udalak herriko saneamendu sarea hobetzeko azken urteotako egitasmorik handiena jarri du martxan herritarren bizi kalitatea hobetu eta Gobela erreka inguruko uholdeak saihesteko. Jarduera hori, premiazotasunez abiatu dute iazko ekainean herrian izandako uholdeen ondotik. Planak, hamar bat jarduera jasotzen ditu Romo, Neguri, Makaleta, Maidagan, Sarrikobaso, Aldapa, Ollarretxe eta Ereaga alderako. Horien artean nagusiarena, Romoko Kresaltxu eta Santa Eugenia kaleetan egingo diren lanak dira, 10 hilabetez luzatuko direnak. Hamar jarduera horiek, urte amaierarako edo 2011ko hasierarako amaitu gura dituzte.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak

Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pablori 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

F. Loubane, E. Araujo, M. Ferrufino > Getxoko Etorikinen Plataforma

“Gure kulturak bertokoei ezagutarazi eta eurengandik ikasi gura dugu”



Fatima Loubane, Elisabet Araujo eta Marcelo Ferrufino

Urte bete behararen daroaten arren, abenduan egin zuen aurkezpen ofiziala Getxoko Etorikinen Plataformak. Getxoko Udaleko Immigrazio sailak bultzatutako plataformak, bederatzi etorkin elkarte eta hainbat kulturetako lagun batzen ditu. Indarrak batu eta proiektu komunak egiteaz gain, euren jatorrizko kulturak getxoztarren artean zabaltzeko eta euskaldunoi buruz gehiago ikasi gura dutela azaldu digute Elisabet Araujok, Fatima Loubanek eta Marcelo Ferrufinok.

—Nola sortu zen Plataforman batzeko ideia?

—Getxoko Udaletik heldu zitzaigun proposamena joan den urtean. Etorikin elkarte barri asko sortu dira azken urtean eta, Immigrazio Teknikariak, egoki ikusi zuen Plataforma sortzea elkarteak harremanetan egoteko.

—Zenbat elkarte eta zeintzuk bildu zarete?

—Guztira, bederatzi elkarte gara: Adrebol, Arahma, Berdintasuna, Caritas, Egintza, Hijos de Quinara M'Benne Botcha, Pagkakaisa, Perualde eta Sikap.

Horietan jatorri eta kultura ezberdinetako lagunak biltzen gara: Bolivia, Maroko, Guinea Bissau, Filipinak e.a. Euskal Herriko jendea ere badago plataforman. Elkarte batzuetan etorkinak eta bertokoak batera egiten dute behar.

—Zer asmo daukazu?

—Denbora gutxi daroagu elkarregaz beharrez eta oraindino ez dugu egitasmoa erabat zehaztu. Gure helburu nagusia indarrak batzea da; uste dugu elkarregaz jardunez, banaka baino indar handiagoa izango dugula eta egitasmo gehiago atera ahal izango ditugula au-

rrera. Bestalde, plataforman elkarte gazteak, orain dela hilabete batzuk sortutakoak, eta aspaldikoak batzen dira. Batera egonda, barriak direnak urte asko daroatenen teknikak ikasi ahal izango dituzte.

—Ez zaizue zaila egiten hainbeste lagun elkarlanean jartzea?

—Udalak Fundacion Ellacuria kontratatu du koordinazio lana egiteko, Plataformako lan sistema ondo finkatu arte. Euren lana amaitutakoan, gu arduratu beharko gara antolaketaz. Horrez gain, talde lana, lidergoa eta elkartegin-

«Bederatzi elkarte eta hainbat kultura batzen dira Plataforman»

tzari buruzko ikastaro batzuk egin ditugu, teknikak ikasteko.

—Badaukazue Proiekturik epe motzera?

—Elkarte bakoitzak bere proiektuak ditu, jatorrizko herrietako kirolak, dantzak, ohiturak edo jakiak bertokoen artean zabaltzeko, besteak beste. Oraindino ez dugu Plataforma bezala proiekturik sortu. Getxoztarrek nortzuk garen eta gure kulturak nolakoak diren jakitea gura dugu eta gugaz behar egiten animatzen badira, askoz hobeto! Guk ere eurengandik ikasi gura dugu.

—Zelan joan zen Plataformaren aurkezpena?

—Oso pozik gaude erantzunagaz. Alkatea hurreratu zen eta, datorren urterako, laguntza handiagos eskaintzeko prest zegoela esan zigun. Gauza interesgarriak egiten ditugula ikusten dute, eta laguntzeko prest agertzen dira. ○

Informazio gehiago: 618 423 571 / sikap09@gmail.com

Frantsesetik euskarara

lan bi itzuli ditu **Xabi Paya** algortarrak **Alberdania** argitaletxeagaz



Alberdaniagaz hiru lan itzuli ditu Xabi Paya algortarrak

Gazte polifazetikoa dugu Xabi Paya algortarra. 2009ko Bertso Txapelketa Nagusian ikusi badugu ere, ez da bertolaritza jorratzen duen kulturagintzako esparru bakarra. Oraingoan, Alberdania argitaletxeagaz elkarlanean egindako lan bien itzulpenagatik ekarri dugu UKko orriotara. Marie Darrieussecq (Baiona, 1969) eta Anna Gavaldà (Paris, 1970) idazleen *Le pays* (Herria) eta *J'aimais* (Maite nuen) lanak itzuli ditu frantsesetik euskarara. Alberdaniagaz egin duen hirugarren itzulpena da, aurretik *Desio izeneko tranbia* Tennessee Williamsen obra itzuli

li baitzuen.

Darrieussecq-en eleberririk, *Herriak*, saiakera ukitua dauka. Sorterriaren inguruan hausnarketa egiten du idazleak, hizpide duen herriari izenik jartzen ez badio ere. Payaren ustez, bereziki interesgarria da *“euskal herritarra den idazle ez euskaldun batek Euskal Herriaz”* egiten duen gogoeta.

Bestalde, Gavaldaren *Maite nuen*, lana *“maistrala”* da algortakoaren hitzetan: *“Oso hurbil ditugun gauzak oso era berezian kontatzen ditu”*. ○

Informazio gehiago: www.alberdania.net

15.000 EURO IKASTETXE PUBLIKOAK LAGUNTZEKO

Udalak 15.000 euro banatuko ditu herriko ikastetxe publikoen, eta Helduen Hezkuntzako taldeen artean, hezkuntza jarduerak sustatzeko. Andra Mari, Juan Bautista Zabala, Larrañazubi, San Ignacio, Zubilleta, Romo, Gobela eta Geroa herri ikastetxeei, eta Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Ikastegi Publikoari 7.600 euro inguru emango dizkie liburutegiak, eskulanak, kirol gaiak eta eskolaz kanpoko jarduerak bete ahal izateko. Zubilleta eta Romo ikastetxeei eta Julio Caro Baroja eta Artaza Romo institutuei 3.000 euro emango dizkie, ikasgela iraunkorreko jardueretarako. Azkenik, Mugabarik eta ECCA Romo elkarteek 1.602 euroko diru-laguntza jasoko dute eskoletako ekimenak egiteko.

AGATE DEUNA KORU TXAPELKETAN IZEN-EMATEA

Urtero legez, otsailaren 4an kalera urtengo dira herriko abesbatzak makilagaz lurra jo eta herria kantuz betetzeko. Ohikoa denez, Getxoko Kultur Etxeak txapelketa antolatu du. Izena eman edo informazio gehiago eskuratu gura duenak Getxoko Kultur Etxera deitu edo hurbildu beharko du hilaren 14tik aurrera.

Informazio gehiago: 94 491 40 80

ZINE-KLUBA ETA ZINEMA PARADISO URTARRILEAN

Urte barria estreinatu badugu ere, badaude Getxoko Kultur Etxearen eskaintzan aldatu ez diren aukerak. Horiek dira barikuro, gaueko 22:00etan, Andres Isasi Musika Eskolan egiten diren Cinema Paradiso eta Zine-kluba. Urtarrilean lau filma eta laburmetraia bat proiektatuko dituzte. Hilaren 8an, *Control* luzemetraia eta *El nunca lo haria* laburmetraia ikusi ahal izango dira. 15ean, *Cuscus* filma. 22an, Donostiako Zinemaldian egon zen *La caja de Pandora*; azkenik, 29an, *El primer día del resto de tu vida* ikusi ahal izango da.

lagusana
libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Elhuyar Aholkularitza > euskara eta parte-hartzea enpresetan eta erakundeetan

“Gazteak, hirigintza eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna ere lantzen ditugu”

Orain hiru hilabete iritsi zen Leioara Elhuyar Aholkularitza. Euskara lan munduan txertatzeko lanean dihardute, besteak beste. Langileek azaldu dizkigute bere egitekoak eta asmoak.

—Bulegoa zabaldu duzue herrian, baina zer da Elhuyar Aholkularitza?

—Elhuyar Fundazioaren enpresa bat da eta bi jardun-eremu nagusi ditu: euskara eta parte-hartzea. 1991n ekin genion modu egituratu eta planifikatua euskara lan-munduan txertatzeko lanari, ia berrehun proiektu landu ditugu Euskal Herri osoan, enpresetan, erakundeetan eta administrazio publikoan. Hizkuntza normalizatzeko proiektu horietan, aha-gegin handia egin dugu parte-hartzean oinarritutako metodologia lantzen eta egokitzen, euskararen arlokoak ez diren egitasmoetara zabaltzeko aukera eman digu. Azken urteotan gazteen, hirigintzaren edota emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alorrak lantzen dihardugu, eta proiektuetan euskaraz ere jardun ahal izango dela bermatzen.

—Zergatik zatozte Leioara?

—Leioa, Getxo, Uribe Kosta, Txorierrri, Ezkerraldea eta Bilbo bertatik bertara



Ikea eraikinean daukate bulegoa Elhuyarreko lagunek, Estartetxe kalean

izan gura ditugu. Bertan lanean diharduten bezeroak hur gura ditugu.

—Nola lan egiten duzue?

—Gure lanerako oinarria parte-hartzea da: gauzak ezagutu, alkarregaz landu, aztertu eta denon artean eraiki. Horretarako, teknika bereziak erabiltzen ditugu, erraz ulertzeko eta ikusteko modukoak. Jende-mota oso desberdinez behar egiten dugu, eremu eta behar bakoitzaren ezaugarrietara egokitzen

gara eta gure oinarriak aplikatzen ditugu: parte-hartzea eta euskara.

—Luzerako zatozte?

—Geratzeko etorri gara. Bilbo Handiko enpresa eta instituzio ugari ari gara lanean: Getxon, 3. Berdintasun-plana-gaz hasi behar dugu; Metro Bilbaon, Euskotrenen, Euskaltelen eta Lantiken dihardugu; eta Ezkerraldean hainbat ikastetxetako hizkuntza-normalkuntzarako planak diseinatzen gabiltza. ○

Europako zientziaren mapan kokatuko da Euskal Herria, Neutroien Iturriaren azpiordezkaritzagaz



EHUren etorkizuneko Zientzia Parkea kokatuko duten lekuan eraikiko dute azpiordezkaritza

Bost urte barru lanean hasiko da Europako Espalazio Bidezko Neutroien Iturriaren azpiordezkaritza. Eusko Jaurlaritzaren ekimena bada ere, Leioako EHUren kanpuseko Zientzia Parkean kokatuko dute eraikina.

Lakuak eta Espainiako Gobernuak 180 milioi euro inbertituko dute egitasmoan. Javier Bermejo ikerlaria izango du zuzendari, eta dagoeneko, hark presatatu plan zientifikoa onartu dute, baita azpiordezkaritzaren funtzionamendua arautuko duten estatutu barriak ere.

Batzorde errektorearen presidentetza txandakakoa izango da, eta lehen urtean, Carlos Martinez Espainiako Ikerketako estatu-idazkaria izango da presi-

dentea. Isabel Celaa EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua, barriz, presidenteordea izango da.

Baina zer egingo ote dute bertan? Bada, Europako ordezkari nagusian kokatuko dituzten teknologiak ikertu, garatu, diseinatu eta fabrikatuko dituzte; horixe izango da zentroaren jardura nagusia epe laburrera. Suitzako Lund hirian kokatuko da ordezkari hori.

Abenduan aurkeztu zuten eraikinarren maketa. Zentroak 60 lanpostu sortuko dituela iragarri zuen ekitaldi hartan Patxi Lopez EAEko lehendakariak, eta horietako askok, goi-mailako prestakuntza izango dutela. ○

VICRILA EROSTEKOTAN DAGO ZUZENDARITZA

Arc Internacional multinazionalari Vicrila erostekotan dabil lantegiko zuzendaritza, bien arteko akordioaren arabera. Akordioa burutzekotan zegoen, UK-ko zenbaki hau itxi dugunean. Eusko Jaurlaritzak berak babesa eskaini zion egitasmo barriari. “Etorkizunean jardura handiena gauzatuko dela eta langileen gehiengoari eutsiko zaiola bermatu denez”, prozesuagaz bat egingo du. Hainbat tresna eta konponbide erabiliko dituela jakinarazi du: kapitalaren inguruko babesa emango du eta egingo diren esku-hartzeetan lagunduko du Vicrilak “beste urte askotan jarrai dezan bere jardura gauzatzen”. Gogora dezagun, lantegiko orain arteko jabe Arc Internacional frantziar multinazionalak, Vicrilan diru gehiago ez inbertitzea erabaki zuela azaroan. Lantegia 2013an ixtea ekarriko zukeen horrek. Bestalde, Leioako Udalak ere enpresa ez ixteko “beharrezkoak diren neurriak aurrera ateratzeko asmoa” agertu zuen abenduan. Etorkizunean, enpresa dagoen lur eremua ekintza ekonomiko berera eta enplegua sortzera bideratuta egongo dela bermatu zien Udalak zuzendaritzari eta enpresabatzordeari, eta ez etxebizitzak eraikitzen.

ATERPE GUNERAKO IDEIA BILA, OPEN SPACE

Aterpe Gaztegunea abian da aspaldi, herriko “gazteentzako aisialdirako eta kulturarako espazioa” izan gura duena. Baina bertan zer antolatu? Horixe galdetu gura diete leioaztar gazteei, “guztion artean erabakitzeke bertan zer egin”. Hainbat bide erabiliko dute. Batetik, eztabaida taldeak osatuko dituzte herriko eskola publikoetako DBHko tutoretza klaseetan, galdetegi bat gida dutela. Batxilergoan, barriz, galdetegi hori bera bidaliko zaie, gura izanez gero bete dezaten. Hori dena urtarilean egingo dute. Bestetik, 12-21 urte bitartekoak ere galdetegi bera betetzera gonbidatuko dituzte. Dagoeneko udaleko, zein Kultur Leioako web guneetan topa daiteke.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BASTARTEA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

OSKIBIDE HORTZ KLINIKAZ

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Odontotripi
- Periodontia
- PADI

Bidebasi 27, beheko eskalera
ALGORTA
94 430 76 96



[erandio]

Alicia Romero > gizarte gaitasunei buruzko ikastaroa

“Bizitza garatu ahal izateko gaitasunak landuko ditugu, gugaz eta ingurukoakaz eroso sentitzeko”

Gizarte gaitasunei buruzko ikastaroa emango dute Altzagako Postako antzinako bulegoetan, martxoaren bitartean, eta Udaleko Kultura sailaren eta Aukera Onena heziketa zentroaren ekimenez. Alicia Romerok gidatuko du, zentroko langileak.

—Gizarte gaitasunak, nahiko gai abstraktua, zertan datza?

—Saiatzen gara ikasleek harreman sozial positiboak sortu edo mantentzeko beharrezko baliabideak eskura ditzaten, lantokian, lagunakaz... On edo kalte egin diezaieketen jarrerak antzemateko gai izan daitezten erakusten diegu, antsietatea txikitzeko eta babesgabetasun sentazioei aurre egiteko estrategia baliagarriak ezagut ditzaten... Zerikusi handia dauka asertziotasunagaz. Besteen eskubideak eta jokabideak kontuan izatea da asertziotasuna, baina ezetz esaten ikastea eta norbere eremua defenditzea ere, errudun sentitu barik.

—Zer egingo duzue Erandion?

—Gizarte gaitasunak zer diren eta zertarako balio duten azalduko dugu, komunikazio gaitasunei buruz berba egingo dugu, auto-afirmatzeko baliabideei edo asertibo izateari buruz, sentipenak eta emozioak adierazteko baliabideei buruz,



Leioako Jose Ramon Aketxe plazan dago Aukera Onena heziketa zentroa

kritikak onartzeari buruz, pertsona pasiboiei eta agresiboiei buruz... Egokiena erdiko jarrera edo asertziotasuna dela on-doriotzatuko dugu. Gainera, berbaldiak asko egiten dugu. Horiek dira ikasleek gerora gogoan izango dituztenak, beste pertsonakaz esperientziak partekatuko dituztelako.

—Emitza positiboak lortzen dituzue?

—Ikastaro dinamikoak dira, teoriarako tartea ez da lar luzea eta ariketa praktikoa asko egiten dugu. Horiek dira ikasleek gerora gogoan izango dituztenak, beste pertsonakaz esperientziak partekatuko dituztelako.

—Heziketa zentroa zarete.

—Udal eta enpresetan egitasmoak daukagu, norbanakoagaz ere behar egiten dugu. Produktibitatea eta trebakuntza profesionala hobetzen saiatzen gara. ○

Ikus-entzunezkoak larri

Lanbide Heziketa barrirako eraikinean Arte Eszenikoen Zentroa egingo dute



Ikus-entzunezko lau goi mailako zikloetatik, bi baino ez ditu eskaintzen sare publikoak

Hezkuntza sailaren jokaera “*larritzat*” jo dute eta Lanbide Heziketako Ikus-entzunezko zentro barria Bilboko antzinako erakustazokaren 7. pabilioian koka dezatela eskatu dute Tartanga Lanbide Heziketako Komunikazio, Iru-di eta Soinu saileko irakasleek. Eraikin horretan Arte Eszenikoen Zentroa egingo dutela iragarri zuten urrian EAeko Hezkuntza sailburuak eta Bilboko alkateak.

Tartangako irakasleek salatu dute “*eraikin hori dagoeneko esleituta zegoela Lanbide Heziketako Ikus-entzunezko zentroa sortzeko, 2008ko ekainaren 20an sinatutako akordioaren ondorioz (Laku-*

ko Gobernuaren eta Aldundien arteko akordioa)”. 2007tik EITBko teknikariak egitasmoa garatu dute, ikus-entzunezko hezkuntza-eskaintza publikoaren hutsuneak bete asmoz. Diotenez, “*lau goi mailako zikloetatik bi baino ez dituzte eskaintzen; irakaskuntza pribatuak bakarrik egiten du eskaintza osoa*”.

2008ko abenduan batu ziren Lakuan Arte Eszenikoen Zentroaren ordezkariak, egitasmoa bien bateratzea aztertzeko. Balorazio positiboa egin zuten arte dramatikoa eta dantza arloetarako. Lakuako gobernu barriaren sailburuordetzari uztailan igorri zizkieten ikus-entzunezko egitasmoaren xehetasunak. ○

LUTXANAKO OINEZKOAK SEGURUAGO DABILTZA

Oinezkoentzako ez da arriskutsua izango Asua-Erandioko eta itsasadarreko errepideen arteko bidegurutzea, Lutxanan. Izan ere, errepide azpitik joango den oinezkoentzako lurpeko pasabide bat eraikiko du Bizkaiko Foru Aldundiak Herri Lan sailak, Erandioko Udalaren lankidetzagaz. Egitasmoa gauzatzeko 796.544 euro gorde du Foru Aldundiak. Udalak eskuratuko ditu egitasmoa burutzeko beharrezko lurrak.

LUR-AZPIKO PARKINGA ASTRABUDUAN

Iturrimingo kalean eraikiko dute lur-azpiko aparkalekua, 140 eta 200 autorentzako lekua izango du, bi edo hiru solairu izango dituen erabaki behar dute eta. Zorupea enpresa eraikitzaile bati salduko diote eta hark eraikiko du aparkalekua, baita autoak uzteko lekuak saldu ere, baina orubearen gainazalaren jabea Udala izango da. Aparkatzeko lekuak salduko dituzte, denbora baterako esleitu beharrean. Udalak dioenez, “*aukera horren aldeko jarrera nabarmendu zen auzotarren artean egin inkestan*”. Egitasmoa esleitzeko lehiaketa aurten egitea aurreikusitako da Udalak. Auzotarren arazorik “*garrantzitsuenetakoa*” konpontzera dator egitasmoa, Asier San Nicolas Hirigintza zinegotziaren iritziz.

TXIRRINDULARI ELKARTEAREN SALAKETA

Unben abenduaren 2an hildako txirrindulariak ez zuela auto bat jo salatu du Erandionko Txirrindulari Elkarteak: “*Autoak harrapatu zuen ikuspen oneko zonalde batean*”. Renault Megane Scenic autoko gidariak kontrola galdu, kontrako bidea inbaditu eta txirrindularia harrapatu zuela adierazi du elkarteak. Kirola praktikatzeko baldintzak hobetzeko Erakundeek “*ezer gutxi*” egiten dutela uste dute txirrindulariek, eta hedabideen jokaera kritikatu dute, “*biktima istripuaren eragile kokatzen dutelako*”.

Torrera 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA

Basolanak
Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

LUBERRI
Basolanak S.L.

- Zuhaitz landsketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITUI

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54
www.arlan.biz

RISE TO FALL IRABAZLE BILBO HIRIA LEHIAKETAN

Sopelako eta Bilboko lagunek osatzen dute Rise to fall taldea, eta Bilbo Hiria musika lehiaketaren metal kategorian irabazi dute. Hiriburuko Bilborock aretoan jokatu zuten finala abenduaren 16an, Iruñeko *Akatu* eta Usurbilgo *Mendeku Itxua* taldeakaz. Hirurak dira Euskal Herrikoak. Metal estiloan euskal taldeak maila altuan daudela eta gorantz egin duten erakusle da hori, antolatzaileen iritziz. Sopeloztarrek laster kaleratuko dute *Restore The Balance* diskoa, taldea ezagutzera emateko asmoz.

UDALA NEKAZARITZA SEKTOREAGAZ

“Euskal lehen sektorearen aldeko” mozioa aurkeztu zuen EAJko Udala azaroaren 26ko Osoko Bilkuran eta onartu egin zuten, aho batez. Haren arabera, Udala bat egin du nekazaritza eta abeltzaintza sektoreagaz, “bizi duen une zaila dela-eta”. Era berean, gaiari buruz erantzukizuna duten erakundeei galdegin die nekazaritza eta abeltzaintza produktuen komertzioaren politika indartzeko; hots, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari. Finean, lehen sektorearen garrantzia nabarmendu gura izan du Udalak, “bai ikuspuntu ekonomikotik, bai ikuspuntu ekologikotik”.

INTERNET DOAN LIBURUTEGIAN

Ordenagailu eroangarria hartu, liburutegira hurreratu eta piztu, besterik ez da behar interneten ibiltzeko. Izan ere, Wi-Fi bidezko interneterako sarrera eskaintzen dute bertan. Baina ordenagailurik ez daukanak ere erabili ahal du interneta, liburutegiko ordenagailuetan. Edozeinen eskura daude, lagun bakoitzak 60 minutuz doan ibiltzeko. Horrenbestez, sarean dagoen informazioa ikus daiteke. Baina ez hori bakarrik, Liburutegiko katalogoa ere bertatik bertara kontsulta daiteke. Halere, debekatuta daude txat zerbitzuak liburutegiko ordenagailuetan.

Animaliak hondartzan ibili ahal dira azaroaren 1etik apirilaren 30era; ordenantzan aldaketak egin dituzte



Txakur jabeen eskaria aintzat hartu du Osoko Bilkurak

Udaleko hondartzetan sartu ahal izango dituzte animaliak udako denboraldiaz kanpo. Animalien Jabetza eta Babeserako Udala Ordenantzaren aldaketa egin dute, “*txakurren jabeek egindako alegazioen ostean*”. Azaroko Osoko Bilkuran onartu zuten aldaketa, Hondartzetako Udala Ordenantzari egokitzeko asmoz.

Zehazki, azaroaren 1etik apirilaren 30era bitartean ibili ahal dira animaliak Sopelako hondartzetan. Urtearen gainontzekoan, ordea, “*gisa guztietako animalien sarrera eta bertan egotea*

debekatzen da”, hau da, maiatzaren 1etik urriaren 31ra bitartean, biak barne. Tarte horretan hondartzan animaliarik sartuz gero, kutsu larria duen arau-haustetzat joko dute eta 121 eta 300 euro arteko isuna ezarri ahal izango diote jabeari. Halere, erabakia ez da izango Gida-txakurren Legean ezarritakoaren kalterako.

Aldaketaz batera, behin-betiko onartu zuten Hondartzetako Erabilera Erregimeneko Udala Ordenantza; uztailearen 30eko Osoko Bilkuran onetsi zuten behin-behinekoz. ○

Itzartu Antzerki Taldea > Sopelako اندرازكو aktoreak

“Uste genuen taula gainera igotzeko gai ez ginela izango, baina hemen gabilta”



Astelehenero entseatzeko dute Itzartukoek Udala Musika Eskolan

1992tik dabilta taula gainean Itzartu Antzerki Taldeko emakumeak eta urtero eskaintzen dute ikuskizun bikaina sopeloztarren gozagarri eta Fernando Ansoleagaren gidaritzapean. *Magnolias de acero* aurkeztu zuten azaroan eta entseatzeko harrapatu genituen.

—Kultur Etxe barria estreinatu duzue *Magnolias de acero* lanagaz?

—Bai, urtero obra barria prestatzen dugu ekainean antzezteko. Baina aurretik atzeratu egin da hainbat konturen-gatik. Martxoaren 8aren kariaz ere beste antzezpen bat egin ohi dugu. Aurreko batzuetan inguruko herrietara ere joan gara, Urduliz, Getxo, Zamuudio, Deriora... Orain ez dakigu zer gertatzen den, agian antzerki talde asko dago?

—Ikusleek nola hartzen zaituztete?

—Sopelako ikusleek beti hartu gaituzte oso ondo, asko laguntzen digute eta ez digute kale egiten. Ikusleak beti suma-

tzen ditugu gu ikusteko gogoagaz. Oso pozgarria da hori.

—Izan ere, antzeztea gustuko duzuelako zabilzate honetan, ezta?

—Bai, lan handia egiten dugu. Obra askotan, soinekoak guk geuk josi behar izan ditugu, dekoratuak egin... horretan senideek ere laguntzen digute.

—Ez da erraza izango pertsoniak emakumeak bakarrik diren lanak topatzea.

—Bai, zaila da. Zuzendariak eta guk

«Ikusleek beti hartu gaituzte oso ondo, ez digute kale egiten»

geuk bilatzen ditugu. Asebetetzen gaitu lana aurrera ateratzeak, imajina ezin genezakeen zerbait egitea. Teloia altxa eta jaitsi besterik ez genuela egingo uste genuen, taula gainera irteteko ere gai ez ginela izango; baina hemen gabilta. Hori bai, emakume gehiago eta gazteak antzeztera animatzea gura genuke. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER
DEVNA**
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

HAUR PARKERA URTEERA ETA ERREGEEN DESFILEA

Umeek badaukate zereginik oporrak amaitu aurretik. Batetik, Barakaldoko Gabonetako Haur Parkera urteera egingo dute urtarrilaren 4an, BEC aretora. Prezioak adinarean araberakoak dira eta kultur etxeetan eman behar da izena. Autobusa 09:30ean urten eta 18:30ean itzuliko da. Biharamunean, oster, erregeek kabalgata egingo dute. Frontoian txokolatada eta disko-festa izango dira ondotik.

PERTSONA EKINTZAILEEN BIGARREN SARIA HERRIRA

Itziar Garcia berangoztarrak lortu du Uribe Kostako Pertsona Ekintzailearen bigarren saria, *Itziar ileapaindegia* egitasmoari esker. Hortaz, 800 euro eskuratu du Garciak, Uribe Kostako Behargintzak antolatu sariketan. Urduliztar batek lortu du, ordea, lehen saria, Maria Gilek, *Xtreme Sport* bodyboarda ardatz duen denda dauka herrian, eta 2.000 euroko saria jaso du. "Eskualdeko aberastasun ekonomiko eta sozialean eragina duten tokiko ekintzaileen lana azpimarratzea dute helburu sariok" Imanol Garai Sopelako alkate eta Behargintzako presidenteak esan duenez. Sariokaz batera, Ekintzaile Gazteen egitasmoa garatu du Behargintzak Plentziako BHIko batxillergoko ikasleakaz. Animalien portaera hobetzeko farmakoen egitasmoa garatu dutenek lortu dute lehen saria, eta bigarrena, tabako hondakinen kudeaketari buruzko ekimena garatu dutenek.

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 12 43 / 607 952 977 • regarizar@euskalnet.net
Bilbao kalea 14 ALGORITA



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILLERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTERO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Aurrekontu txikiagoa

Inbertsioei, gizarte eta enplegu-gastuei aurre egiteko ahalegina **%4,3 diru gitxiagogaz**



Inbertsiorik handiena egingo du Udalak Santa Anako balio anitzeko eraikina amaitzeko

lazkoak baino %4,3 txikiagoak izango dira aurtengo udal-aurrekontuak, "aurrezteko ahalegina" dela eta; ez dira 7,7 milioi eurora iritsiko. Gastu arruntaren %14,6ko beherapena du oinarri jaitsierak, bertatik jakinarazi dutenez. Halere, "inbertsio ahaleginari eta gizarte zein enplegu-gastuei eutsiko" die Udalak.

Kulturak ere pairatuko du murrizketarik, baina "txikiak izango dira eta Udalaren ekitaldietan baino ez du eraginik izango"; kultur eta kirol elkarrean ekimenak laguntzen jarraituko ei du.

Inbertsioan ahaleginik handiena egingo du Santa Anako balio anitzeko eraikina amaitzeko. Gastu sozialen arloan, barriz, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen urteroko ekarpena mantenduko du. Bere horretan utziko ditu haurrentzako Aste Santuko eta udako egonaldiak ere. Enpleguan ere emango ditu laguntzak, plangintza bereziak garatuz eta trebakuntza ikastaroak eskainiz. "Gastu arruntean gerria estutzea da kontua, eta auzotarrek krisiaren eragina nabari ez dezatela", esan du Anabel Landa alkateak. ○

Maria Gil > *Xtreme Spot*, Uribe Kostako Ekintzailearen saria

"Inguruan surf denda asko dago, baina ez bodyboard dendak"



Maria Gil, Xtreme Spot dendan

Uribe Kostako Behargintzak banatzen duen Pertsona Ekintzailearen saria eskuratu zuen 2009ko abenduan Urdulizko *Xtreme Spot* dendak. Maria Gilek eta Rui Ferreirak zabaldu zuten orain dela hiru urte bodyboardean espezializatutako gunea. Ur kirol hori praktikatzeko materiala ekoizteaz gain, denda birtuala ere badute.

—Nola sortu zen Xtreme Spot?

—Rui, bodyboardean aritzen da, maila profesionalean. Mundu osoan zehar ibiltzen da txapelketetan. Denda zabaldu aurretik, taulak eta hegatsak egiten hasi ginen eta *Respect bodyboards* eta *Aletas de Luxe* markak sortu genituen. Mundu osoko dendetan saltzen ditugu. Hortik abiatuta, denda birtuala sortzea erabaki genuen; Espainiako lehena izan zen. Produktuak saltzeaz gain, albistek eta argazkiak jartzen ditugu. Azkenean,

horrek arrakasta zuela ikusita, Urdulizko denda zabaldu genuen; osagarriak dira, denda birtuala eta fisikoa.

—Zelan hartu zenuten saria?

—Eskertzen dira horrelako sariak, publizitatea egiten eta medioetan agertzen lagundu baitigute.

—Zelan erantzuten du jendeak?

—Oso ondo. Eskualdean surfean espe-

«Materiala saltzeaz gain, denda birtualean albistek eta argazkiak daude»

zializatutako denda asko dago, baina ez bodyboardean espezializatutakoak. Gainera, Rui ezaguna da mundu horretan eta gazte asko bere gomendioen bila hurreratzen da. Krisia zertxobait igarri dugu, baina ez lar. Gure bezero gehienak gazteak dira eta gurasoakaz bizi direnez, ez dute krisia horrenbeste sufritu. ○

tanta.
estetika



BIBRAZIO PLATAFORMA BARRIA
(Berme profesionalagaz)

20 eta 50 euroko bonoak
(10min-ko saioak)



Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
Tf: 645 739 780

Zure beharren araberako ordutegia

TURQUESA
C/ Bidebarrieta n°2 Junto a metro Las Arenas
94 657 69 17
WWW.NOVIASURQUESA.COM



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

SAHARARRENTZAKO JAKIAK BILTZEN 8A ARTE

Gorlizko Udalak, Sahararen Aldeko Elkartasun Karabana lagunduko du beste urte batez. Horretarako, azukrea, atuna, sardinak, arroza, pasta, lekariak eta konpresak bilduko ditu hilaren 8a arte. Lagundu gura duten herritarrek, Kultur Etxera (Krutzeta kalea 5) edo Udal Bulegoetara (Udaletxeko behe solairuan) eroan beharko dute janaria eta konpresak aipatutako eguna baino lehen. Gorliz, La Gúera dairagaz senidetuta dago 2001etik eta hainbat ekimen antolatzen ditu urtean zehar saharar herria laguntzeko.

2010EKO AURREKONTUA PREST DUTE URDULIZEN

Gehiengo onartu zuten Urdulizko Udalean 2010eko aurrekontua. Guztira, 8 milioi euro ingurukoa izango da, joan den urtekoa baino %0.50 handiagoa. Zerga eta udal tasa guztiak bere horretan mantenduko dituzte; aldaketa bakarra, sakelako telefono konpainiei aplikatuko zaien tasa barria izango da. Inbertsioei dagokienez, kiroldegia, metroaren lurperatzea, espaloien zabaltzea eta haurren kolaren ingurua urbanizatzea dira egitasmo nagusiak.

ANDER DEUNA KULTUR ARETO BARRIA BARRIKAN

Barrikak, Kultur Areto barria du abendutik. Ander deuna elizaren ondoan dago kokatuta izen bereko aretoa eta herriko kultura elkarte eta aktibitateen topagune barria izango da hemendik aurrera.

PLENTZIA

Naufragoak protagonista Plasentia Butron museoan



14 auzokoren historiak batu dituzte erakusketan

Plasentia Butron (Goienkale 27, Plentzia) museoak erakusketa barria atondu du 2010 urterako. *Gure naufragoak*, uretan bizitza galdu duten 14 lagunen historiak batzen ditu; protagonista guztiak plentziarrak edo herriagaz lotura estua izandakoak dira. 1900 urtetik gaur arteko epea hartu, eta orden kronologikoan sailkatu dituzte marinelen historiak. Besteen artean, *Banderas* baporearen historia batu dute. 1940an, Galiziako kostatik hurbil nabigatzen ari zela, U-53

urpekuntzi alemaniarrak torpedoa jaurti eta hondoratu egin zuen. Itsasontziko kapitaina Jose Antonio de Madariaga y Zabala plentziarra zen.

Erakusketa barria prestatzeaz gain, Museoaren erakusketa iraunkorrari Jenero Urrutiaren koadro bat gehitu diote eta *Belatik baporearen pinturaren bidez* izeneko katalogoa berrargitaratu dute. Museoa eguaztenetik domekara goizez dago zabalik; asteburuetan 17:00etatik 20:00etara bisita daiteke. ○

Urt. 2 - Urt. 31

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Luis Medina Mansoren akrilikoak eta teknika mistoa.** Algortako erakustaretoan.

Urtarrilaren 9ra arte, 10:00etatik 13:00etara. Doan.

► **Gonzalo Iribarnegarainen argazkiak.** Algortako Satistegi kafetegian. Urtarrilaren 15era arte.

► **Arte Ederretako ikasleen lanak.** Algortako erakustaretoan. Urtarrilaren 11tik 23ra.

► **Arte Ederretako irakasleen lanak.** Algortako erakustaretoan. Urtarrilaren 25etik otsailaren 6ra.

PLENTZIA

► **Surfa, lehena eta oraina.** Gofi Portalen, urtarrilaren 15etik 29ra.

► **Lumine Motus, argazki erakusketa.** Gofi Portalen, urtarrilaren 26ra arte.

MUSIKA

SOPELANA

► **Gabon kantak.** Kurtzio Kultur Etxean. Urtarrilaren 4an, 19:30ean.

URDULIZ

► **Xabi Legina.** Kultur etxean, urtarrilaren 9an.

ERANDIO

► **Jazz Fushion de Luxe.** Josu Murueta Kultur Etxean. Urtarrilaren 30ean, 19:30ean. 2 euro.

ZINEMA

GETXO

► **Amada Mantis kortoa eta Puñalada traperaren bideoak.** Itzubaltzeta gaztetxean. Urtarrilaren 8an, 21:00etan.

► **Erakusketa**

Txotxongiloak, mundu bat

Mundu zoragarria irudikatu ohi dute txotxongiloek. Corrado Masaccik asko daki horri buruz, txotxongilo kolekzio bikaina bildu baitu bizitzan zehar. Orain, hainbat herrialdetako jatorrizko txotxongiloak ikus daitezke Kultur Leioako erakustaretoan, baita beste herri eta kulturetakoak eredutzat hartuta, Masaccik berak egindakoak ere. Beste batzuk, aldiz, gizakiari buruz egindako behaketatik sortu ditu. Bidaia bat planteatzen du munduan zehar eta, aldi berean, norberaren barnera. Astelehenetik barikura, 10:00etatik 20:00etara bisita daiteke erakusketa. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, barriz, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Sarrera libre da.

• **Non:** Kultur Leioan • **Noiz:** Urtarrilaren 15era arte

► Haur zinea euskaraz: Bonkers.

Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Urtarrilaren 3an 12:00etan eta 17:00etan. Sarrera 2,1 euro.

GETXO

► **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxean. Urtarrilaren 8an, 19:00etan. Doan.

► **Maldito parne.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Urtarrilaren 23an, zapatua, 19:00etan. 8/10 euro.

► **Kabaret.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Urtarrilaren 30ean, zapatua, 19:00etan. 3 euro.

ANTZERKIA

SOPELANA

► **Potxin eta Patxin.** Kurtzio Kultur Etxean. Urtarrilaren 3an, 18:30ean.

ERANDIO

► **Las chicas serias no gustan, ya te digo...** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Urtarrilaren 16an, 19:30ean. 2 euro.

URDULIZ

► **Desnudos en Central Park.** Kultur etxean. Urtarrilaren 29an, 18:00etan eta 20:30ean.

BESTEAK

GORLIZ

► **Derby hipikoa.** Hondartzan, Urtarrilaren 3an, 12:30ean.

► **Umeentzako parkea.** Pilotalekuan. Urtarrilaren 4an, 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era.

BERANGO

► **Erregeen kabalgata eta disko festa.** Pilotalekuan. Urtarrilaren 5ean, 19:30ean eta 21:00etan.

SOPELANA

► **Erregeen desfilea.** Urgitxieta Plazatik. Urtarrilaren 5ean, 18:00etan.

URDULIZ

► **Esku-pilota txapelketa.** Iparralde kiroldegian, urtarrilaren 8an, 19:00etan.

PLENTZIA

► **Sorospen ikastaroa.** Izena eman Gofi Portalen, urtarrilaren 15a baino lehen.

LEMOIZ

► **Ikastaroak.** Helduentzako zein umeentzako. Urtarriletik aurrera, kultur etxean eta Armintzako eskolan.

ERANDIO

► **Tai Chi ikastaroa.** Bekoa ikastetxean, urtarriletik aurrera, eguazteneko. Izena eman urtarrilaren 15a baino lehen, Gazte Informazio Bulegoan.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

email: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



[albuma]

Ederra, pintxo-jana!

Ohituren artean maiteenakoa jana ei dugu euskaldunok, pintxotan ibiltzea zer esanik ez! Getxoztarrek zerbait badakite horretaz, abenduaren 19an eta 20an pintxo-jan ederra egin zuten eta. Lehiaketa burutu zuten lehenbizikoz, *GetxOnegin!*, Udaleko Euskara Zerbitzuaren ekimenez. Hogei tabernak eskaini zituzten bere mokadurik onenak, horra adibidea. Zein ote da gozoena?

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Kontuz

non zapaltzen duzun!

Opariez gainera irudi polita utzi du Olentzerok aurten Algortan, geltoki ondoan, eta bitxia oso! Hiru dimentsiotako irudia da, lurraren barnean sartzen dela eman arren, zoru lauaren gainean egina dago, bai! Eduardo Relero argentinarrek margotu zuen, Getxoko Enpresarien eta Merkatarien Elkartearen ekimenez. Hiru margo egin zituen herrian (horietako bat da Olentzerorena), merkatarien esanetan, “*gabonei begira jarduera ekonomikoa sustatzeko*”. Areetako Eskolen plazan eta Romoko Ibaiondo kalean egin zituzten beste margo bitxi biak.

[berbetan]

Urte mordoak daroaz Aurora Lagok (Santander, 1953) Iruñean bizitzen. Azadi Kurdistango Dokumentazio Zentroa sortu zenetik da bertako buruetako bat eta orain dela hamabost urte baino gehiagotik jarraitzen du herri kurduaren auzia. Kurduen bilakaera historikoaz eta gaur egungo egoeraz jardun dugu beragaz, Turkiako Auzitegi Konstituzionalak beste behin Parlamentuan ordezkaritza zuen alderdi kurdu bakarra legez kanpo uztea erabaki barri duen honetan. Herri kurduaren barri sakonago izan gura duenak Lagok idatzitako hurrengo idatzia irakurtzea baino ez du, berori lotura honetan aurki daiteke: www.centrokurdistan.org/documentos/kurdistanlucha.PDF

Aurora Lago

Kurdu borrokalariak bihotzean gertu

Testua: **I. Sagarminga** / Argazkia: **ArgazkiPress**

—Nazio-estatu independente izateko baldintza historikoak eta beste betetzen baditu ere, gaur egun 4 estaturen mende (Turkia, Irak, Iran eta Siria) bizi den herria da Kurdistan. Historia lau berbatan azaltzea ezinezkoa bada ere, gaurko egoera ulertzeko zeintzuk dira, labur, gakoak.

—Abiapuntua I. Mundu Gerra amaitzean ipin daiteke. Garaiko potentziek, Frantziak eta Ingalaterrak, otomandar Inperioa elkar banatu zuten; gerraren ondorioz Inperio Otomanoa guztiz zatikatu zen. Herrialde horiek Ekialde Ertain kolonizatua (nahiz eta aurretik ere egon) banatzeari ekin zioten. Orduan Sevresko Ituna (1920) emanen da, non herri kurduari autodeterminazioa lortzeko aukera eskaintzen zaion, otomandar Inperioko gainontzeko herriei legez. Gerora barriro helduko diogulako, gako garrantzitsu bat aipatu gura nuke: otomandar Inperioaren aldiaren gutxiengoenganako, kristau, judutar edota ortodoxoenganakoa, zelanbaiteko errespetua bazeon; millet-etan eratuta zeuden, bakoitzaren erlijioaren eta ohituren arabera bizi zitezkeen, trukean edo zerga ordainduz. Os-

tera, kurduak ez ziren gutxiengotzat jotzen, musulmanak direlako. Sevresko Itunak, bai, gutxiengo legez onartu zituen, baina 1923ko Laussanako Ituna sinatzean, Turkiak, gaurko Errepublika bihurtzekotan, bere estatusa baliatu zuen. Urte hartan Turkiak bere burua nazioarteko potentzien (frantziarrak, ingelesak, italiarrak) baldintzapetik askatzea lortu zuen. Beraz, Turkia Laussanako Itunera ahots propioagaz heldu zen, eta hor dagoeneko ez ziren onartuko herri kurduaren eskubideak, argudiatuz

“Kurdistan okupatzen duten herri denek kurduen aurkako errepresio basatia gauzatu dute, bereziki Turkiak”

kurduak ez direla gutxiengo bat. Bestalde, Ekialde Ertaineko petrolio aberastasuna antzeman zuen hainbatek ordurako; beraz, ez da interesgarria izango, gehienbat Ingalaterrarentzat, herri kurduak autodeterminazio eskubidea edukitzea. Geroztik Ekialde Ertaineko mapa modu ezberdinean osatuko da; Kurdistan 4 zatitan banatu zuten. Kurdistan okupatzen duten herrialde-

den-denek herri kurduaren aurkako jazarpen eta errepresio izugarri basatia garatu dute. Izan ere, lau herrialdeen artean eztabaidaka, norgehiagoka ibili badira ere beti egon dira denak ados auzi kurduari dago-kionez, kurduen aurkako errepresioari dago-kionez. Urte hauetan guztietan herrialdeok jazarpen ikaragarriaren bidea jarraitu dute, bereziki Turkiak. 30. hamarkada aurretik eta lehenengo urteetan hainbat altxamendu egon zen, Turkiako Gobernuak gogorki suntsitu zituenak; eta Kurdistanek

salbuespen-egoera biziko du 70. hamarkada arte. Auzi kurdua zegoenik ere ezeztatu du, ukatzen du herri kurdua eta kurduera bazirenik ere; turkiarrentzat ez dago kurdu-rik, denak turkiarrak dira, kurduak izendatzeko: mendietako turkiarrak, isolatuak, ezjakinak esaten diete. Halere, matxinada eta erresistentzia kurduak iraun du. —Hurrengo inflexio puntuak 1984ra



garamatza. PKKren (Kurdistango Langileen Alderdia) sorrera, borroka armatuaren bidea hartzea erabaki zutenean.

—Lehenago Askapen Mugimendua sortu zen; 1984an PKKren borroka armatua. Turkiak errepresio beldurgarri itzela gauzatu du: lurak erre, garbiketa etnikoa, zenbait gunetako despopulatzeta e.a. lako metodoak erabili ditu. Horrek kurduen eta Turkiako Gobernuaren arteko etengabeko liskar egoera eragin du. Borroka armatua hasi zenetik, urte hauetan guztietan, hori da bizi duten egoera; baina aldan-aldean PKK-k Turkiari bake prozesurako negoziazio eskaintzak luzatu dizkio, eta 90. hamarkadatik aldeakarreko hainbat su-eten hori ahalbidezkeo; Turkiak inoiz onartu ez dituenak, inoiz ez.

—Apiriletik dirau PKK-ren su-etenak; auzi kurdua lehenengo aldiz eztabaidatzen ari zen Turkiako Parlamentuan, non DTPk (Gizarte Demokratikorako Alderdia, alderdi kurduen ilegalizazioaren ondorioz sortu zen 2005ean) 22 parlamentari dituen; auzi kurdua jorrazteko Turkiako Gobernuak “irikiera demokratikoa” abiatu duenean; Okalan (PKK-ko buruzagi preso bat) plana mahaigainean... Enegarren aldiz itxiarazi dute kurduerazko egunkari bakarra, beste behin legez kanpo utzi du Turkiako Auzitegi Konstituzionalak DTP alderdia.

—Iaz eta batez ere aurten, Turkiako Gobernuak hartu duen jarrera, zelanbait historikoa da; auzi kurduaz berba egitea Turkian historikoa delako, historikoa Parlamentuan jorraztea, historikoa aurtengo legegintzaldia hastean Turkiako presidenteak eman zuen diskurtsoan, turkiar batasunaren kontra jo barik, baina, gatazka kurdua konpontzeaz berba egitea... Zentsu horretan da jarrera hori historikoa, kontuan hartuta gune militarren eta oposizioa alderdien (berziki eskuin muturra) kontrako jarrera irmoei aurre egin behar izan diela. Halere, Gobernuak planteatzen duena, historikoa dela onartu behar bada ere, eta DTPk, Okalanek baita PKK-k ere, kurduak bultzatzen badute ere, eskubide sozialean oinarritzen da, ez dago bake prozesurako proposamenik, ahalegina herri kurduari esku-

bide sozial gehiago ematean datza. Komunikabideetan agertu diren kontu bakkarenetakoak, ez delako ofizialki jakinarazi ekimen hori zertan oinarritzen den, hurrengoak dira: unibertsitate kurdua sortzea, kurdueren onarpen handiagoa, ihes joandako hainbat intelektuali, herritartasuna kendutakoei, itzultzen uztea, hilketarik egozten ez zaien PKK-ko kideentzako amnistia, 12 urtetik

“Kezka bi: zibilen arteko liskarra bihur daitekeela, eta salbuespen-egoera izendatu eta estatu kolpea gauzatzeta”

beherakoei terrorismoaren aurkako lezea ez ezartzea e.a. Herri eta erakunde kurduak bultzada handia eman dioten ekimena izan da, baina oso-oso mugatua. Ekimena, hori dena galtzeko bidean dago orain DTP-ren legez kanporatzea dela eta. Ez da lehenengo aldia alderdi kurdu batek parlamentariak dauzkana Turkian, lehenengoa 1993-94an izan zen lauzpabost parlamentari kurdu egon ziren, horien artean Leyla Zana, erreferente har litekeena; espetxeratuak izan ziren ala erbestera ihes egin behar izan zuten Parlamentuan kurduen eta turkiarren arteko elkarbizitza bake-tsua, bakea gura zutela aitortzeagatik, Zanak kurdueraz berba egiteagatik 15 urteko kartzelaldia... Orain DTPgaz 21 izatea lortu dute! Legez kanporatzea erabakitzean, nik uste, ekimena bertan behera uztaizter behartu dutela Gubernu turkiarra. Azken berrien arabera,

“Esango nuke Espainiako Gobernuak dela Turkiakoaren bidea kopiata duena, alderantziz baino gehiago”

DTPk dagoeneko ez du prozesua babesten, ez du Turkiako Gobernuaren ekimen kurdua bultzatzen, eta parlamentari guztiek Parlamentua utziko dute. Momentu honetan liskar asko gertatzen ari da kurduen eta turkiarren artean. Kezka bi daude agerian: bata, zibilen arteko liskarra gerta litekeela; bestea, salbuespen egoera izendatu eta estatu kolpea

gauzatzeta. Oso larria da egoera; beldur naiz, Auzitegi Konstituzionalaren erabakia ez ote den Gobernuaren ekimena boikoteatzeko asmoz hartu. Itzaropena izatetik, gainera kurduen babesagaz, egoerak eman duen itzulia latza da. Zer gertatuko den ezin jakin, baina kontua ezin da lar itzaropentsu bizi.

—Egunkariaren itxiera, alderdien legez kanporatzea... Euskaldunontzat oso hurbileko

kontuak. Ostera, esan liteke, beste herrialde batzuei adierazten diegun elkartasuna, hurbiltasuna ez diegula helarazi.

—Egia da hemen gertatzen diren hainbat kontu auzi kurduagaz aldera litekeela: alderdien legez kanporatzea, egunkariaren itxiera, errepresioa, kurduena are mugakoagoa bada ere... Ostera, egia ez dena, eta esan gura dut komunikabideetan atera dutelako, zera da: DTP-ren legez kanporatzea justifikatzeko Batasunaren gaia erabili dutela. Auzitegi turkiarren gura izan duenean oinarrituko zuten, imajinatzen dut Estrasburgoko epaiari begiratuko ziola, baina esango nuke Espainiako Gobernuak dela Turkiakoaren bidea kopiata duena. Alderdien legez kanporatze andanak Turkian historikoak izan dira, oraingoa beste bat baino ez. Gainera Auzitegi turkiarra AKP (Gobernuko alderdia burua) ere legez kanpo-

kurdua baliteke urrun gelditzea, nahiz eta geografikoki urrunago dauden zenbait herriren egoera hurbilago sentitzen dugula egia den, baina kurduen inguruan, arrazoia nire iritziz herri eta auzi kurduaren gainean ezagutza oso urria dugula da. Ez ditugu ia ezagutzen kurduera, kurduen kultura, historia e.a.; agian hobe edo apur bat ezagutzen duguna euren erresistentzia eta eskubideen aldeko borroka

“Egon dadila benetan eta benetako nazioartearen presioa eta borondate politikoa auzi kurdua konpon dadin”

dira, baina ez da herri horren ezagutza gehiago sakontzen. Benetan ezagutzea merzi duen herri eta kultura dira, munduko herri kulturen aberastasunaren arteko beste bat.

—Kurdistan iparraldetik (Turkiaren menpekotik) hegoalderantz, Iraken menpeko kurduengana hurbiltzeko, aipatu behar harritu gintuela AEBen Iraken inbasioa onetsi zutelako kurduak, geroztik...

—Zehaztu behar dugu Kurdistan hegoaldeko alderdi nagusi biek, ez guztiek, egin zutela bat inbasioagaz. Nire iritziz bi alderdi horiek barriro ere hanka sartze historikoa egin dute. Lehenago ere bat egin zuten AEB-gaz; urrunegi joan barik ere Golkoko gerran,

eta gerora albo batera utzi zituzten, beste behin, bakarrik lotu ziren alderdi kurduak. Historia hurbilean ere ikusi zuten zein izan zen ondorioa, eta barriro ere bat egin zuten haiekaz; esango nuke alderdi bi horiek gehiago ordezkatzeko dutela hainbat familia klanen interesak, herri kurduaren aldarrikapena baino. Halere, aitortu behar dugu, Bazani aita altxamendu kurduen buruetako bat izan

zela, hau da, egon badagoela hegoaldeko kurduen matxinada, borroka, erresistentzia historia ere euren eskubideak aldarrikatzeko. Bateraketa eman zenean esan nuen hanka sartze historikoa zela, eta zoritxarrez gertaerek erakutsi dute hala izan dela. Gaur egun, egia da, zelanbait erdi-autonomia egoera dutela, baina ez dut uste horrek hegoaldeko Kurdistanen autodeterminazioa ekarriko duenik; ikusi beharko zelan eratuko den Irak AEBek alde egiten dutenean, baina dena delakoan ere nire iritziz kurduak ez dute autodeterminazio eskubiderik edukiko, besteak beste: AEBek ez dutelako interesik izango, Turkiak ez duelako baimenduko, ezta Iran eta Siriak

ere. Ez barne politikak hartuko duen garapenak, ezta hurbileko beste estatuak ere ez dute onartuko; eta AEBri Irak zatituta egotea ez zaio interesatuko, kontu bat da alde egitea eta beste bat politika irakiarraren hariak gidatzeari uztea. Gainera, Turkia hego Kurdistanen sartu da dagoeneko, iaz azkenekoz, beraz hori ere ez litzateke barria.

—Kurdistan ipar eta hegoaz gainera, zein da Siriako eta Irango kurduen egoera?

—Ezin esan egoera ona denik ere. Auzi kurduaz berba egitean ezin esan “alde honetan primeran daude!”. Zenbait urtez, PKK-ren oinarriak Sirian zeudenean, esan liteke errepresioa apur bat leunagoa izan zela, gune horretako herrialdeen arteko harremanen eraginez, barbarako, bestelako interesak egon ziren Turkiaren kontra e.a. Gaur, iaz eta aurten, herri kurduaren aurkako errepresioak gora egin du: kartzelaratzak, egunkariaren itxierak e.a. Egoera ez da batere ona. Bestalde, Irango kurduen egoeraren gainean, beste horrenbeste. Orain dela gutxi liskarrak egon dira, hildakoak, gune kurduan errepresioa. Inongo estatutan ez dago asmorik, ezta borondate politikorik kurduak euren eskubideak izan ditzaten, ezta kurduak konponbiderako punturik adosteko; egun ez dago, eta Turkiako Gobernuaren ekimenak piztutako esperantza ere galtzen ari da. ○

Emakumeak eta lehenengo hartuemonak

—Emakume kurduen egoera ere hurbiletik ezagutzen jarraitu duzu.

—Lehenengo eta behin, zehaztu beharrek da ezin daitekeela berba egin andrazko kurduaz, ezta Ekialde Ertainekoez ere oro har, mendebaldeko ikuspuntuagaz, ikuspegi etnozentriko horretatik; hainbeste estereotipo dituzte gure gizarteak! Gainera, bada beste oker, estereotipo bat: erlijioa, ohiturak, kasu honetan islama, atzerapenagaz, garaiotatik urrun daudelako kontuagaz identifikatzea. Gainera, kontzeptu horiek (modernitate, askapena e.a.) guztiak geure esanguren arabera darabilzkiegu! Kurdistan iparraldeko andrazko kurduengan, hori izan da eta gehien landu dudana atala, bilakera oso interesgarria antzematen dute. Euren kultura alde batera utzi barik, jauzi kualitatibo oso garrantzitsua eman dute politikako, elkartetako edo prentsa-ko partehartzeari dagokionez, euretako askok ohiturak, kultura, tradizioak edo fededunak direnak euren erlijioa alboratu barik egin dute. Gero, PKK-k badu

emakumeek soilik osatutako talde gemilaria. Nire ustez, askapen mugimendua jauzi kualitatibo hori gerta dadin lagundu du, andrazkoak herri kurduaren eskubideak aldarrikatzeko mugiarazi dituelako. Horrez gainera, emakumeak eurak ere mugitu dira gizarte kurduaren eta alderdien barnean ere andrazkoen eskubideen alde, emakumeak ere lan egin dute gizarte partehartze aktiboan izateko. Bestalde, beste kultura askotan legez, emakume kurdua izan da kultura kurduera eta kultura kurdua andrazko kurduak gorde eta belaunaldiz belaunaldi transmititu dute.

—Zerk erakarri zuen Aurora Lago herri kurduaren elkartasunera?

—1993-94an hasi nintzen herri kurdua ezagutzen: hitzaldi baten ostean, gaia interesgarri irudituko zitzaidan eta irakurtzen hasi nintzen. Agian, lehen aipatutako ezjakintasan erogan ninduen herri kurdua ezagutzeko nahia izatera; bidezko borroka dela irizteak, herri zuzen baten

aldarikapenak direla konturatzeak, hori guztia guztiz ezezaguna dela pentsatzeak, eta gainera herri kurduaren (oro har Ekialde Ertaineko herrialdeen) aurkako aurreiritzi eta txarto ulertu asko daudela ikusteak... Orduetik gero eta gehiago joan naiz eurenagan, eta horretan jarraitzen dut. Gura nuke, ez dakit zelan azaldu, benetan eta benetako nazioarte mailako presio eta borondate politikoa auzi kurduari irtenbide aurkitzen laguntzeko eta gatazka konpontzeko; auzi kurdua behingoz konponbide garaietan, adostasun aroan sartzen has dadila, elkarbizitza bakesurako bidea sortzen hasteko, hori delako euren eskatzen dutena: euren eskubideak, momentu honetan eskubide kulturalak direnak, politikoa eta sozialak, barreiatuta dauden herrialdeak elkarbizitza. Hori historikoki izan dutelako, Otomandar Inperioko beheko joan baino lehen, elkarbizitzean egon baitziren. Hori gura nuke, urte asko eta asko direlako sufritzen emandakoak. Herri kurduak merezi du bakean bizitzea bere eskubideak aitortuta.



Naturari kateatuak

Kazetaritza ikasketak egin baditu ere, artista sena dauka Itoiz Navarro algortarrak. Ikasteko gogoak eta arterako grinak eroan du argazkilari izatera; autodidakta da. Prentsarako argazkiak, zein gizarte gaietako erreportajeak egiten ditu. Hiru urtez egon zen ETB 2. kateko *Sustraia* saioan beharrez; Zegama, Gamiz, Idiazabal, El Villar... txoko eta lagun asko ezagutzeko aukera izan zuen. Lurrari zein itsasoari "kateatuta" bizi diren horien guztien istorioa kontatu gura digu artistak ondoko argazkiakaz; gehienetan ez dira protagonista izaten, nahiz eta euren papera ezinbestekoa den pelikulak aurrera jarrai dezan.

Argazkiak: **Itoiz Navarro** • www.itoiznavarro.com











BETIKO

IKASTOLA

**GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako Ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAURKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Telletxe 3
ALGOITIA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Film labor getxoztar bat

Elisa Batoni eta Alvaro Gonzalezek **Espargilus agudo** lana aurkeztu dute



Informazio gehiago: www.elisabatoni.com edo www.sayakaproducciones.com

Beste film labor batzuetarako askotan egin legez, oraingoan ere Alvaro Gonzalezegaz prestatu du *Espargilus Agudo* film laborrarako gidoia Elisa Batoni zine zuzendariak. Ideia zelan jaio zen azaltzeko zera dio Batonik: “*Irakurri, ikusi edo ikasitako kontuek, esperientzia pertsonalek sortzen dizkidan ezinegon-arduretatik sortzen zaizkit ideiak. Gidoia idatzi genuen A Gripearen kontua oraindino airean zegoela, islatu gura izan duguna hau da: gure buruak bakarrik ustekoetan, komunikabideek esandakoetan edo jendeari entzundakoetan, oinarrituta zelan iritzi propioa sortzen duen, eta hortik askotan paranoiak elikatu; eta horrek sarritan eragiten duela zenbait talderen bazterketa*”. 6 minutuko tartean protagonistak Espargilus akutua birusa daukala sinesterraino eta jendearen bazterketa sentitzerainoko istorioa kontatzen du Getxon (metroa, Areta, Neguri, Osakidetza aurrean e.a.) filmatutako lanak.

Lanak Getxoko Udalaren laguntza jaso du (2.000 euro), gainontzekoa “aurrez-tutakoagaz” ordaindu dute, gutzira 6.000

euro inguru; eta “*kalitate nahiko ona eskaini eta merkeagoa delako*” HDV-n grabatu dute. Getxon egoitza eta Gonzalez buruetako bat duen Sayaka Producciones-ek ekoitzi du lana; artista ezagunentzako (Fito&Fitipaldis, Athom Rumba, Zodiacs e.a.) bideo klipak, filmak e.a. egin dituen produkzio-etxeak.

Abenduan aurkeztu zuten *Espargilus*

«Sarean igorriko den Los Buscadores saila prestatzen nabil orain»

Agudo film laborra, eta jaialdi-lehiaketetara bidaltzeko asmoa dute. Bestalde, Batoni iragarri duenez amaraunerako *Los Buscadores* saioa prestatzen dabil “*hainbat getxoztargaz; ea sailak igortzen dituzten webguneren batek gurea eskaintzeko aukera ematen digun*”. Amaitzeko aipatu, zuzendariak Replay italiar moda etxearentzat sortutako *Replay your best moments* bideo klipak Veneziako Zine jaialdian egiten den film laborren Off Zirkuituko lehengo saria jaso duela aurtzen. ○

Ekaitz Agirregoitia > Siroka taldeko gitarra leioaztarra

“Sirokoaren indarra eta femeninotasuna du hitz-jokoak”



Harremanetarako: 688643426. Informazio gehiago: www.myspace.com/sirokataldea

Udan sortu zuten Maria (ahotsa), Gaizka (baxua), Gorka (bateria) eta Ekaitzek (gitarra) Siroka taldea eta abenduan aurkeztu barri dute *Haize berriak* (MusikHerria) lehenengo lana. Apurka, Izate Faltsua, Feos Pero Majos, Neguri Gorriak edo Kloratita taldeetan ibilitako Balmaseda, Amurrio, Ugao eta Leioako (Ekaitz) kideek osatutako taldeak harrera beroa jaso du.

—**Ibilbide laborra, baina diskoa kalean.**

—Tarte ia berean eskari bi jaso genituen: bata, Balmasedako gazte asanbladak etxebizitzari buruzko bildumarako kanta bat sortzea eskatu zion Mariari, bera ibilitako taldea desagertu zen, eta elkar ezagutzen genuenez gu-

ri proposatu zigun; bestea, Sahararen aldeko bildumarako MusikHerriak ere beste bat eskatu zuen; Mariak biak egitea proposatu zuen. Alkarregaz gustura genbiltzan, eta behin grabatzen hasita, kanta gehiago egin eta azkenean, ez oso luzea, baina diskoa egin dugu.

—**Zergatik Siroka?**

—Kanta batek “Iraultza Siroka” du izenburu; Maria eta Gorka berbagaz jolasten hasi eta, euskaraz badakigu ezetz, baina “a”k femeninotasuna iradokitzen du; sirokoaren indarra eta femeninoa, hori da hitz-jokoak.

—**Estiloari ere etiketa ipini diozue.**

—Ahotsak ematen die kantei melodia, ez horrenbeste gitarrak; bateriaren eritmo al-

daketak dantzatzeko nahiko errazak dira eta gitarra-baxuaren oinarriak nahiko rockeroak. Norbaitek esan zigun powerpopa zela; ez dakigu hori zer den ere! Rocka da, baditu pop ukituak. Popa hain baliogutxiturik dago musika komertzialak egindakoagatik, kosta ere egiten zaigula popa egiten dugula onartzea.

—**Autogestioaren bidetik jo duzue. Diskoa doan lor liteke, baina Durangon 3 eurotan nahikotxo saldu zenituzten.**

—**Hasieratik MusikHerriaren egitasmoan**

«Abestien hitzetan gai politikoak eta filosofikoak nahasten ditugu»


sinetsi eta ibili gara. Zenbat jaitsiera ezin kalkulatu, baina 300 CD-tik gora saldu ziren Durangon. Erronka zen, taldea ez zelako eza-guna; oso pozik gaude!

—**Zer dute oinarrian Sirokaren letrek?**

—Gai politikoak eta filosofikoak nahasten dira. Euskal Herria da gure herria. Injustiziak salatzen modu bat musika-hitzak erabiltzea dela jakitez gain, konponbide bila joateko hitzek ere balio dutela uste dugu. Exebizitza eskubidearen trafikanteen kontra, sahararren alde, beldurraren gizartea eraiki gura dutenen kontra, Esperantza frontoitik Jarrai-Haika-Segiko gazteak eroan zituzteneko irakurketa, hipokrisiaren aurka, gure herriaren historia ezagutzeko behararen aldarrikapena... Hasierako Jone Uriaren bertsoak oso ondo islatzen du hori dana, gure mezua. ○

diskoak

Gabeko kalapitxixak
Piztiak
Gor



Taldearen diskorik onena dela dio askok. Hamahiru abesti barri batu dituzte, eta gainera, taldekideek aurretik zeukaten TU-K taldearen “*Pornographiaz*” abestiaren moldaketa ere sartu dute. Aske izan gura dutenen istorioak dira; zoriontsu izan ahal izateko gura dute libre izan, errakuntzak egiteko, baita sortu eta konposatzeko ere.

II
Laila
Baga Biga



2006ko apirilean sortu zuten Laila taldea lau lagunek, Mungia institutuko jai interkulturean parte hartzeko. Gustura lotu eta aurrera jarraitu zuten. Disko honetan “*bi mundu antagonikoak*” uztartu dituzte, musika melodiko eta erakargarriaz. Metala eta rock melodikoan eroso dabilta.

Itoiz Suite
Batzuren artean
Serrano ekolozpenak



Juan Carlos Perez, Jose Angel Serrano, BOS eta Jesus Mari Lazkano elkartu dira Itoiz taldearen musikaren bariazio sinfonikoak prestatzeko. Juan Carlos Perez jatorrizko taldeko kide eta musika gehienaren egileak berridatzi ditu abestiak orkestra sinfoniko batentzat. Zuzeneko disko eta DVD honetan bildu ditu, guztiztatzat gozagarri.

etorri
eta
ikusisi!!

ORIXA

liburudenda

Algorria & Euzko Liburu Zerbitzua
Tf. 94 430 15 00
Algorria

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

I

**Iñaki
Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHELER
AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorria

[liburuak]

E(torkizuneko)-liburuak

Liburu digitalen eztabaidan bada erantzuteko hamaika **galdera eta** hamaika **aburu**

Durangoko ajeak begian utzitako hondarretako bat da liburu digitalena. Bini-loak, CD-ak, mp3-ak... Eskutitzak, mezu elektronikoak, sms-ak... Paperezko argazkiak, egunkariak, aldizkariak, eta agerkari digitalak... Uhin bitarteko irratia, amarauneko irratia... Hamaika eskaintza batzen duten sakelakoak. Teknologia mundua aldarazi eta eraldatu du; liburuak dira, gura ala ez, erronkari eusten hurrengoak.

Kontua zehaztu aldera, liburu digitalak (edukia gordetzen duten fitxategi informatikoak) irakurtzeko euskarria behar da, liburu elektronikoak (zirkuitu elektronikoak dituzten aparailuak), irakurgailuak. Horren albotik, e(torkizuneko)-liburuen eztabaidan abantailen eta desabantailen lehia da nagusi. Abantailen aldetik aipatzekoak: irakurgailuan (gaitasunaren arabera) eduki-lan dextente gordetzeko memoria, testu bilaketa azkarrak, paperean inprimatzeko eta banaketak eragindako gastuak (zuhaitzek ere eskertuko dutena) eta denbora murritztea, hainbat liburukiko bildumak bakarrean jasotzea, orri askoko liburu mardulak aldean eroateko traba ahaztea, artekarien gaingastua kentzea e.a.

«Erronka barriak, abantailak eta konponbidea bilatu beharreko desabantailak»

neko)-liburuen eztabaidan abantailen eta desabantailen lehia da nagusi. Abantailen aldetik aipatzekoak: irakurgailuan (gaitasunaren arabera) eduki-lan dextente gordetzeko memoria, testu bilaketa azkarrak, paperean inprimatzeko eta banaketak eragindako gastuak (zuhaitzek ere eskertuko dutena) eta denbora murritztea, hainbat liburukiko bildumak bakarrean jasotzea, orri askoko liburu mardulak aldean eroateko traba ahaztea, artekarien gaingastua kentzea e.a.

Aurrerakoak desabantailak edota konponbidea bilatu beharreko erronka barriak dira: liburu eta gailu barrion eredu ekonomikoa: irakurgailu merkeenetakoak 250 euro balio du, irakurgailu denek ez dituzte formatu guztiak (pdf-irudiak eta ikusteko *-e-pub, mobipocket*) irakurtzen, murritzten diren kostuak kontuan hartuta liburu digitalen salneurria batzuentzat garestiegia da; edukien



Liburu digitala

kopiatu kontrolatzeko zailtasuna: autore eskubideen-babesa, jabetza intelektuala, *copyright* (DRM liburu digitaletan) ala *copyleft* edo *Creative Commons*? e.a.

Erronkak badira, eztabaida piztu da; industriaren aburua entzun dugu eta jarraituko duen bidea antzeman liteke; baina irizpideak oraindino ere finkatzeke daude, ekoizpen sektorean zein literaturarenean, eta sortzaileen (idazleen) aho-tsa, gogoeta entzutea ere espero dugu, irakurleek ere izango dute zer esan eta pentsatu... Iraultza ororen aurrean legez,

«Momentuz Alberdania eta Elkar dira liburu digitalak eskaintzen dituztenak»

damuari lekuri ez uzteko hasieratik hausnartu eta hartu behar dira erabaki egokiak, gutziontzat justuak, eta duinak!

Momentuz gurean liburu digitalen eskaintza duten argitaletxeak Alberdania (liburu digitalak paperezkoak baino %30 merkeago; DRM babesagaz) eta Elkar dira; liburu digital bat erostegatik beste batzuk oparitzen ei dituzte. Eta zorionekoak gu, oraingoan behintzat euskara ez da atzean lotu. ○

[kirola]

Kirol saila Gorlizen

Hainbat **ekimen eta azterketa** ipini dituzte daborduko abian beharrikanak asetu asmoz



Gorlizko polikiroldegia

Gorlizko Udalaren webgunean adierazi dutenez, Kirol sail barria ipini dute martxan. Jakinarazi dutenez, *“azken urteotan Gorlizko udalerraren biztanleria nabarmen hazi da, batez ere adin bitarte jakin bateko (gazteenak) bizilagunen kopurua; talde horren bizimodu osasuntsurako ohitura eta ingumenarekiko, zein osasunerako balioen bezkuntza haziz doaz, eta horrenbestez horiek garatzeko azpiegituren eta kirol horniduren eskaria ere bai”*. Hala, Gorlizko Udala horretaz konturatu eta “eskari horiei entzungor izan ez dela” agertzeko Kirol saila abian ipintzeko beharra antzeman du. *“Kirol sailak bereziki herritarren ardurak batuko ditu eta kirol politika zehatza osatzen hasiko da, beharrik ezarritik eta hainbat ekintza gune lehenetsiz, horiei erantzunez”*, azaldu dute. Horiek bideratzeko Kirol sail barriaren ardura eroango duen Kirol zuzendaritzan eta kudeaketan Goi-mailako Teknikaria ipini dute, Xabier Bilbao, jakinarazi dutenez Kultur Etxean jardungo duena.

Dagoeneko abiatu dituzten ekintzak ondorengoak dira: egoeraren gaineko txostena idatzi eta udalerrian beharrezkoak liratekeen kirol azpiegituren inguruko azterketa, goliztarrei zuzendutako kirol ohiturei eta beharrikanari buruzko inkesta, kirol egituren azterketa eta horiek garatzeko aurre-egitasmoa, kirol egituren erabilerarako araudia idaztea, eta hainbat ekimen ere antolatu dituzte da-

«Berbako egiturak aztertu eta horiek garatzeko aurre-egitasmoa prestatzen ari dira»

borduko, berbarako: Uda 2009 kirol eskaintza, tenis ikastaroak, irristaketa ikastaroak, skate ikastaroak e.a. Horrez gainera ikasturte honetarako, hau da 2009-2010 bitarterako kirol jardueren egutegia ere prestatu dute, besteak beste hurrengoan eskaintza iragarri dute: irristaketa ikastaroa, surf ikastaroa, eski ikastaroa, eta tenis ikastaroa; halaber, proposamen barriak jaso eta eskaintzeko aukera ere egon litekeela jakinarazi dute. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIROL
MODA



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Iñaki Friera > idazlea

“Durangon suertea izan da, figura handiek ez dute argitaratu eta lekua utzi digute”

Bigarren nobela kaleratu du Iñaki Friera Algortako bizilagunak (Barakaldo, 1962) Durangoko azokan, Zureak egin du. Idatzi, askok idazten du, eta mundu horretan leku guran dabil. Une zaila horretarako?

—Liburu honegaz, zureak egin du, Iñaki?

—Pentsatu gura dut ezetz. Hasiera ere ez da, baina tira, espero dut nobelak bultzada ematea nire lanari, idazten jarraitzeko eta nire izena ezagun egiteko. Orain arte nire zazpi liburuetatik bost izan dira ume eta gazte literaturakoak, eta horretan ibiltzen garenek ez gara helduen literaturan dabilzanak bezain ezagunak. Horrek beti aukera ematen du beste publiko bati zabaltzeko. Beraz, espero dut nireak egin baino, nireak aukera izango duela aurrera egiteko.

—Kazetaria da protagonista thriller tankerako nobela honetan, gutun bat jaso du...

—Kazetaria da, hasibarria zelanbait esateko, eta emakumeen kontrako tratu txarrei buruzko artikulua idatzi du. Aldizkariko zuzendariaren gustuko izan da eta berari enkargatu dio aldizkarian sortu gura duten atal barria, ikerketagaz lotutako atala. Beraz, berari enkargatu diote tratu txarrei buruzko erreportajea egiteko. Hori prestatzen ari dela jaso du gutun edo CD anonimoa. Bertan jipoi bat ikus daiteke: gaua da, emakume eta gizon bat ageri dira, gizonak emakumea kotxetik atera du indarrez eta jo egin du, bortxa erabili du haren kontra. Irudi hutsak baino ez dira, eta mezu bat: “Zergatik begiratu biktimari erruduna bilatu beharrean?”. Besterik ez. Beraz, kazetaria



Susa literaturak argitaratu du nobela; emakumeen aurkako tratu txarrak ditu hizpide

bilatzen hasiko da zer dela-eta bidali dioten hori, irudietatik lortutako informazioari jarraitu, gero eta gehiago korapilatuko da istorioa.

—Zergatik hautatu duzu gai hori?

—Lan kontuak direla-eta aukera izan nuelako tratu txarrak pairatu dituzten emakume batzuen lekukotasunak ezagutzeko. Harritu ninduen lehen gauza izan zen emakume guztiek kontatzen

duena, zergatik iristen da horraino?”. Eta lekukotasunok entzunda, ohartu nintzen ez dela horren simplea, badagoela menpekotasun kontu bat, sindrometzat ere jotzen dute medikuek eta forenseek. Emakume batek kontatu zuen bere historia: egun jakin batean esan zuen nahikoa zela, etxetik alde egitea erabaki zuen, baina kotxea eta semea hartu eta kalera urten zenean, konturatu zen ez

“Nire buruari galdetzen nion zergatik aguantatzen ote dituen emakume batek tratu txarrak mutur horretaraino”

zutela gauza bera. Baina ez bakarrik euren, eurekaz behar egiten zuten psikologoek, medikuek, forenseek, abokatuak... azkenean danek kontatzen zuten istorio berdintsua. Askotan tratu txarren aurrean neure buruari, nik neuk ere, galdetzen nion: “Zer dela eta aguantatzen du emakume batek aguantatzen

zekiela ezkerretara edo eskuinetara jo, ihesean zihoala baina ez zekiela nora. Azkenean lortu zuen iristea emakumeei laguntza emateko zentrorra. Bertan gehien errepikatzen zen hitza “bihar” zen. Bihar mundura bueltatzen zarenan, bihar barriz zure familia osatzen duzunean... Emakume horrek ideia

eman zidan nobela idazteko.

—Zelan jaso du irakurleak, erakarri du?

—Goiz da oraindino, baietz espero dut, baina Durangoko azokan estreinatu da. Bertan ondo saldu da, erosleak ondo hartu du espero dezagun irakurleak ere ondo hartzea.

—Durangokoa urteko liburuak erosteko aitzakia ei da, baina euskal kultura sustatzeko baino, ez ote da bihurtzen ari kontsumorako azoka?

—Nik gero eta argiago ikusten dut hori. Garai batean euskaraz idatzitako eta sortutako literatura eta diskogintza zenak, geroz eta espazio txikiagoa dauka. Jostailuak, mendi ibilbideak... hor daude, erdarazko literatura ere hor dago... Apurka euskarazko sorkuntza itzalean geratzen ari da. Bestetik, jende askorentzako topagunea bihurtzen ari

da, baina ez erosteko lekua. Lehengoan Hasier Etxeberriak horrelako zerbait esan zigun, agian sarreran kartel bat jarri beharko litzatekeela “liburuak, erosi ere egin daitezke” leloagaz; jende asko ikus zitekeela, baina horietako gitxi liburua eskuan.

—Ekonomiak ere eragina izango du, ez

idazleak ezagutzera emateko?

—Bai. Aurten suerte una izan da, figura handiek ez dutelako ezer argitaratu. Nobedadeetan izen handiak ez dira horren nabarmenak izan eta lekua utzi digute besteoi. Gainera, Ahotsenea egitasmoa ere abiatu da eta zelanbaiteko bozgorailua sortu digu. Gure ekoizpena

“Liburu bat idatzi eta barrenak hustuta, denbora tarte bat behar da barriz janzteko”

ote dira garestiegiak?

—Hori beti da oso erlatiboa, beste produktu batzuek konparatuta ez dira garestiak. Lehentasunen artean agian azkenak dira, baina ez garestiako direlako, beste gauza batzuk lehenesten ditugulako baizik.

—Edonola ere, Durango aukera bat da

aurkezteko eta elkar topatzeko aukera eskaini digu.

—Eta buruan beste istorioren bat darabilzu dagoeneko?

—Gura nuke idatzi zerbait ume eta gazte literaturakoa, baina liburu bat idatzi eta barrenak hustuta, denbora tarte bat behar da barriz janzteko. ○

“Getxo akordaten naz” dokumentala azpigituluakaz

Zelan eskuratu?
Zatoz UK-ren bulegora*,
eskatu eta eroan musutruk!

* Bulego ordutegia: 10:00-14:00/16:00-18:00
Amezti 6, 4. solairua / 5. bulegoa
Algorta (Getxo)



Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



Arantza Intxaurtieta > Urkixobaso

“Oraindino han bizi diren munstroek beldurra ematen didate”



“Txikitan hondartzara joateko erabiltzen genuen bidea zen”

Txikitan hondartzara joateko erabiltzen genuen bidea zen, eskolatik urtete-an ama gure bila etortzen zen eta hareagaz jolasteko ontzia eskuan hartuta, neba, ahizpa, ama eta laurok heltzen ginen aldapa hasieraraino.

Hortik ikusita leku eguzkitsua zela zirudien eta aldapa behera joaten ginean baso handi hartan eguzkia ezkutatzzen zen zuhaitz hostoen artean. Erdibidean kresal usaina ailegatzzen zen gero eta indartsuago guregana, olatuak ikusten genituen apurtzen harearen kontra batzuetan indarrez eta orduan burrunbadak entzuten genituen. Bost edo sei urteko umearentzat bide alboan

zeuden arbolek handiagoak ziruditen eta beste aldeko harrizko harrisia altuagoa eta ahizpak, nebak eta hirurok galdetzen genion geure buruari zer zegoen horma erraldioen beste aldean eta esna amets egiten genuen harrien beste aldetik bizi ziren munstroakaz.

Aldapa estuago egitean bat-batean zuhaitzen artean eguzkiak harrapatzen gintuen eta behin baino gehiagotan itsu geratzen ginen han zegoen bidea ikusi ezinik, eta begiak irekitzean hondartza agertzen zen gure aurrean eta bueltatu arte arrasti osoa geneukan jolasteko.

Gauetz aldiz, San Inazio jaietan, aita gugaz etortzen zen ibilbide bera egitera.

Gaueko hamaikak aldera hirugarren bolanderagaz batera, egunez hain ondo ezagutzen nuen bidea argitzen zen barriro, baina zerua ez zen urdina bakarrik, kolorez janzten zen, urdinez, berdez, gorritz...eta pentsatzen nuen agian harresien beste aldetik bizi ziren munstroak izutu egingo zirela zu artifizialen zaratagaz eta beste leku batera joango zirela gugandik urrun, agian.

Urteak pasa dira, baina, behin baino gehiagotan Maria Kristina parkean egonda, aldaparen hasiera begiratu dut, baina ez naiz ausartu sartzen, agian oraindino han bizi diren munstroek beldurra ematen didatelako. ○

Prost Delicatessen

Goi mailako zaporeak, mihi finetarako



Naiara Alvarez eta Oscar Martinez dendan

Bilboko La Moderna urdaitegiko jabeen lagunak dira Naiara Alvarez eta Oscar Martinez algortarrak. 1932 urtean hasi ziren La Modernakoak artisau-hestebeteak egiten. Horien esperientzia ezagututa, goi mailako produktuak saltzera animatu ziren Alvarez eta Martinez. Horrela, 2009ko abenduaren lehenengo egunetan zabaldu zuten Algortako Etorbideko Prost Urdaitegi eta Delicatessen denda.

Eskaintzaren zatirik garrantzitsua Alemaniako txarkuteria da; gainontzeko dendetan aurkitzen ez diren produktuak dituzte Prost-en. Horrez gain, Euskal Herriko jaki gozonenako batzuk aukeratu dituzte: Patxi Errenteria bakioztarraren txerrikiak, Urdanpilletak landutako “Euskaltxerri” txorizo eta lukainak, Kepa Freire mungiarren

ketuak, Izarrako (Araba) turroiak, Maruriko gazta fresko eta izozki ekologikoak, Orduñako barraskiloak e.a. *“Balio berezia duten produktuak dira; horrek ez du esan gura garestiak direnik. Kalitatea ez da diru gehiago izan behar”.*

Zintzurra bustitzeko, 50 ardo baino gehiago dituzte, euskal lurretatik zein Italia, Alemania, Galizia eta Madriletik ekarritakoak. Ardo fabrika handiak beharrez, upeltegiakaz egiten dute behar: *“Supermerkatura goazenean betiko markak erosten ditugu. Guk, ardo barriak frogatzera animatu gura ditugu bezeroak”.* Urtariletik aurrera, ardo eta garagardo dastatzeak egingo dituzte.

Mingainari opari gozoa egin gura dionak badaki nora jo. ○

Algortako Etorbidea 69, ALGORTA
Tf. 94 460 22 97

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Etxakina. Gobeia erakinearen aurrean • LEIOA

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUZUBISKAR
URDAITEGIXA

Aditnak gura, Urdaizapiko Iberiko, Pate eta Gazaietan!!

Alangolari 30, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GOZOLABEA
GALDARETXE

- Nardagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 20
- Mayor 11, AREETA Tf. 94 464 77 99
- Sabino Arana 61, LEIOA Tf. 94 464 46 58
- Tellebe 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 616 11 01

Toponimoa > Urkixobaso

Urkixobaso (basoa eta parkea):

Basagoiti etorbideetik Ereaga hondartzara dagoen tartea da Urkixobaso. Antzina inguru hau Saratistegi zen, baina 1848tik aurrera, Urkijo-baso izena eman zitzaion. (1848, Monte “Saratistegi”, hoy “Urkiso-baso”; 1933, monte “Saratistegi” hoy “parque Urkijo-baso”) aldapatsua izateaz gain ez da oso egonkorra eta lubiziki arruntak izan dira historian zehar. Horregatik, 1848an, Urkixobaso izena hartu zuenean Domingo Artetak eta Victoria del Vallek zuhaitzak landatzeko baimena lortu zuten. Urkixo toponimoaren osagaiak urki zuhaitza (*Fraxinus excelsior*) eta -zu/zo ugaritasun atzizkia dira. Aiarako izen honek bilakaera luzea izan du: -zu>-zo>-xo>-jo. Izen oso ezaguna da, baina tamalez azken urteotan Urkijo idazkera okerra zabaldu da Urkixo egokiaren ordez.

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T. 491 14 87 48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 48 (barra, Jata Mendia) T. 460 01 87 48990 GETXO

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

Tf./Fax: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserrria.com



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Amiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobari 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Licentziarik
Orduña Mendatea 1 Telfonetxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g.
Algorta
*Tf. erroreak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA ◆ (Abenduak 21 urtarrilak 19) Jarrera oso polita erakutsi duzu azken asteotan. Egutero hartzen duzu dutxa, zure gauzak txukun eta garbi daukazu. Primeran. Zeure burua non dagoen ere azkenik badakizu.</p>	<p>OTSOA ◆ (Urtarrilak 20 otsailak 18) Aldizkarietara jo ohi duzu aspaldion. Zeren bila? Hori da zuk asmatu behar duzuna. Baina aldizkarietan ez duzu aurkituko zuk gura duzun hori, kalean baizik, egunerokotasunean.</p>	<p>ADARRA ◆ (Otsailak 19 martxoak 20) Ez zara diru lar gastatzen ari? Dirua ez da berez ugaltzen eta nekez irabazten da. Gainera, opor egunak datoz eta diru dexente beharko duzu, gorde ezazu benetako beharra dagoenerako.</p>
<p>AITZURRA ◆ (Martxoak 21 apirilak 19) Suerte handia izan dezakezu datozen egunotan. Kontua ez da espalioan 50 eurokoa aurkitzea. Gauza askoz garrantzitsuagoi buruz ari gara hizketan. Etorbizuna argituko duten gauzez, alegia.</p>	<p>HOSTOA ◆ (Apirilak 20 maiatzak 19) Zergatik sentitzen zara hain inseguru? Horrenbeste denbora itxaron duzu une hau heltzeko eta, orain zer? Ez dakizula zer egin? Noraezean zaudela? Hurrengo batean gauzak hobeto planifikatu.</p>	<p>EGUZKIA ◆ (Maiatzak 20 ekainak 18) <i>Loreak udan ihintza bezela, maita det dama gazte bat...</i> Horrela dio kantak eta horrela dio zure bihotzak ere, ezta? Dama dagoen lekuan beste edozer jar daiteke: zaldun, emakume... eta gaizteren ordez ere, zahar...</p>
<p>GARIA ◆ (Ekainak 19 uztailak 18) Jende askok itxaropen osoz begiratzen dizu. Etorbizun handiko pertsona zara eurentzat. Ez itzazu zapuztu. Beraz, utziozu zapatu gaueko parrandak egiteari, eta eguenetakoei, eta barikuetakoei...</p>	<p>LASTOA ◆ (Uztailak 19 abuztuak 17) Aukera oso polita diru kontuetarako, hau da, erosi, saldu, inbertitu, maileguak burutu, burtsa... denetan emaitza ezin hobek izango dituzu. Ezin aukera hau galdu!</p>	<p>IRATZEA ◆ (Abuztuak 18 irailak 16) Egizu jaramon apur bat osasunari. Ez gara Iruñeko futbol taldeari buruz ari. Heldutasunean agertu ohi diren gaixotasunak gaztetan sortzen dira. Zaindu orain eta nagusitan eskertuko duzu.</p>
<p>META ◆ (Irailak 17 urriak 16) Badirudi zure izena desagertuko dela lagunen memoria kolektibotik. Hori ez da txarrena; erakundeek dirua eskatuko dizute. Gorde itzazu erreziboak eta isunak, beharko dituzu eta.</p>	<p>HAZIA ◆ (Urriak 17 azaroak 15) Olioz bustitako gauzak eskuen artean izatea ez da batera erraza. Zeu ere horrelakoa zara, labainkor, iheskor, aingirak bezalakoa. Ez duzu inor zure ondoan ikusi gura.</p>	<p>NEGUA ◆ (Azaroak 16 abenduak 20) Gogoratzen duzu kirola hitzaren esanahia? Ariketa fisikoa, izerdia, nekea, txandala... Noiz izan da kirola egin duzun azken eguna? Bada garaia barririo hasteko, lagun, bestela pipiak jango zaitu.</p>

Koskakideak behar ditugu
irratia aurrera jarrai dezan!!

Izena..... Deiturak..... Herria.....
E-mail..... Telefonoa.....

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□


Bidali zure datuak
posta elektronikoko edo
posta arrunt bidez

KOSKA
irratia 108 fm

12€ urtean !!
€1 hilean !!
koskairratia@koskairratia.com
k/ Amezti 6 4.pisua 2. dep.
Algorta (Bizkaia)
www.koskairratia.com




HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuma

1. Eskua edo besoa galdu dutenez esaten da. 2. Arloak, sailak. Bizkaieraz, iratzea, garoa. 3. Landare hazidunetan, fruitua, haziak edo kidekoak gordezten dituen estalki. Traidore, saldukeriak egiten dituen. 4. Gizon izena. Joan Mari... euskal sukaldari ezaguna. 5. Nahi bizia, irrika. Uranioaren ikur kimikoa. 6. Sufrearen ikur kimikoa. Eskua izendatzeko erabiltzen den hitza. 7. Zerbait gerta dadin desira adierazteko erabiltzen den hitza. Arte edo lakirio, xedera. 8. Hondoa. Gizonezko ezkontide. 9. Arnas ezak hil. Nafarroako mendatea. 10. Oxigenoa hartua.

Goitik behera

1. Azerbaijango hiriburua. Bazkide. 2. Barrundiko auzoa. Zotz txiki. 3. Kirol mota, taldean egiten dena. 4. Ardoaren eta hedaduraz beste edari bizien destilaziotik ateratzen den isurkari koloregabe eta sukoia. Kontsonantea. 5. Katuaren oihu. Nafarroako urtegi handia. Atzizkia. 6. ... egin, goitik ari. Ardi hitz elkarteetan. Nortasun, instintu. 7. Kontsonantea. Oihalezko atala, leihoetan estalgarri eta apingarri erabiltzen dena. 8. Noka, ditzaket. 9. Garaia, aldia. Opa egin, eskaini. 10. Ardi esnea biltzeko erabiltzen den zurezko ontzi, euskarri bakarreko. Nahastura trinkoa.

Soluzioa

V	N	I	V	N	E	G	I	X	O
E	L	V	L	E	B	E	O	I	I
R	V	N	E	S	V	T	O	Z	
O	P	Z	E	P	V	L	V	X	O
O	K	E	T	S	O	B	S		
U	V	R	A	R	H	E	V		
K	V	Z	V	O	K	R	U		
I	O	T	E	U	K	S	U		
R	A	I	R	A	L	V	A		
K	Z	A	M	O	T	Z	A		

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zelan deitzen da
Iñaki Frier
algortarraren
azken eleberria?

> Aurrekoaren erantzuna: Checkpoint Rock

> Irabazlea: **Olatz Bastarrika***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

*Nork irabazi zuen
Bertso Txapelketa
Nagusiko txapela?*

- **Naroa Agirrek**
- **Pernando Amezketarrek**
- **Maialen Lujanbiok**

> Aurrekoaren erantzuna: Olentzero

> Irabazlea: **Diana Vazquez***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

SARIA

MARGIA

astekariaren biru bilabeteko
harpidetza doan



Aurtengo Nobedadeak:
Zoo Zorua eta Armix Kart

Demoak:
www.elhuyar.org/armixkart
www.elhuyar.org/zoozorua

Joko hau opari gura baduzu, Interneten erosi; %5eko
deskontua www.elhuyar.org/edizioak helbidean



Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



BENE MARKAIDAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

SOPELAKO MARKAIDA MAURIKA FAMILIA, 1934

Horra hor Sopedako Zaldundo auzoko "Zaldundo Goikoa" baserrian Markaida Maurika familia (aitite-amamak, hamar seme-alaba, zortzi suhi-errain eta 27 iloba; ondoko urteetan beste hamasei jaioko ziren). Semerik zaharrenak, Felipe Markaidak (Santoñan fusilatua 1937-09-15ean, UK 140) antolatu zuen hau dena, eta horrela, 1934ko udaberrian Sagondon (horrela deitzen diote sopoloztarrek baserriari) elkartu, bazkaldu eta argazki hau atera zen, familiaren enborra erdi-erdian ipinita: Alejo Markaida eta Petra Benedicta Maurika. Aitite Gatikako Libero auzokoa, Santiune baserrian 1867-07-17an jaiotzen eta amama Mungiako Atxuri auzokoa, Jane baserrian 1870-01-05ean jaiotzen; Mungiako Santa Maria eta San Pedro elizan ezkondu ziren 1893-05-27an. Hiru baserriak (Zaldundo Goikoa, Santiune eta Jane) zutik dira eta hiruretan oinordekoak bizi dira (Sagondon, Bitoria eta Elisa Markaida ahizpak) Benetan bitxia! Baina bitxiagoa litzateke gaur egun honelako argazki bat lortzea, ia errepikaezina eta "Hator, hator" kanta gehituz gero, gabonetarako aproposa. ○

Argazkian agertzen direnak: 1. Gregorio Saitua 2. Felipe Markaida 3. Isabel Markaida 4. Elisa Barrenetxea 5. Ana M^a Markaida 6. Jesus Markaida 7. Meltxor Legarra 8. Bixenta Markaida 9. Joseba Legarra 10. Antonio Aldekoa 11. Anton Olagorta 12. Carmen Markaida 13. Alejandro Markaida 14. Maria Sarria 15. Valen Markaida 16. Miren Saitua 17. Sekun Markaida 18. Victoria Etxebarria 19. Enrike Aldekoa 20. Segunda Markaida 21. Julian Aldekoa 22. Alejo Markaida (Aitxetxe) 23. Petra Maurika (Amama) 24. Gertrudis Markaida 25. Angel Libano 26. Iñaki Libano 27. Begoña Aldekoa 28. Jose Antonio Aldekoa 29. M^aTeresa Markaida 30. M^aAsun Legarra 31. Rosario Markaida 32. M^aEugenia Aldekoa 33. Miren Markaida 34. Luziano Aldekoa 35. Garbiñe Libano 36. Garbiñe Libano 38. Jose Saitua 39. Jose Luis Libano 40. Jesus Aldekoa 41. Sabin Aldekoa 42. Meltxor Legarra 43. M^aIsabel Saitua 44. Pedro M^a Legarra 45. Elisa Legarra 46. Alejandro Markaida 47. Angel Libano 48. Alejo Saitua.

MARIMOTOTS > pailazoa

“Amonak errieta egiten dit tarteka, baina nik bihurrikeriak maite ditut”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **Katxiporreta**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Marimatraka txintxurria (Pirritx bezain txintxo, Porrotx bezain bihurri).

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Hook filmean, gamusinoen laguna izango nintzateke.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Olentzeroren laguntzaile, basoan astoarekin bizi eta denon ametsak betetzen dituelako.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Astelehenetan bonbero, asteartetan lorezain, asteazkenetan sukaldari, ostegunetan astronauta, ostiraletan basozain, larunbatetan kale-garbitzaile, eta igandetan bertsolari.

Badaukazu ohitura txarren bat?

Putzuetan salto egin eta albokoak zipristintzen ditut, paretak eskalatuta belauak urratzen ditut, zuhaitzen adarretatik kulunkatzen naiz; amonak errieta egiten dit tarteka, baina nik bihurrikeriak maite ditut.

Aitor dezakezun bizio bat.

Amona Josefinaren patata tortilla.

Eguna ala gaua?

Biak. Gaua ametsetako koloreak egiten ditudalako, eta eguna, koloretako ametsak bizi ditudalako.

Zerk ematen dizu beldurra? Zergatik?

Haurrak gosez hiltzea, eskolarik ez izatea; basoak, animaliak, herriak eta hizkuntzak desagertu eta koloretako mundua zuri-beltz bihurtzea.

Parrandarik politenak non? Zergatik?

Irrien laguneren festetan, Euskal Herriko laguntxoekin batera, musuak eta piropoak elkarri ematen dizkiogulako.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Gaztelugatxe txalupaz, Bardeak bizikletaz eta Irati oihana oinez. ◯

LABURREAN— Musugorri eta beti irri, horrelakoa da Marimotots, Pirritx eta Porrotx pailazoen laguna. Elkarrizketa abenduan egin genuen, Bizkaira etorri baino egun batzuk lehenago. Izan ere, Barakaldoko BEC aretoa bisitatzekoak ziren Bilboko Konpartsek eta auzoetako jai batzordeek gonbidatuta, eta milaka irrien laguneren aurrean. Horixe bera da eta beraien ikuskizunaren izena, *Irrien lagunak*. Hura bezala, kolorez, musuz eta irribarrez betetako erantzunak eskaini dizkigu Marimototsek UK-ko lagunoi. Eta beraien hitzek eurentzako ere balio dutenez, eman iezazkiegu eskerrak Euskal Herria eta mundua kolorez margotzeagatik, Euskal Herria gehiago maitatzen laguntzeagatik eta irribarre potoloa margotzeagatik guztion aurpegietan. Musu bana ezpainetan!



Piztu LTDa

Askoz gehiago gozatuko duzu

Kalitate Handiagoa

Teknologia digitalak irudi- eta soinu-kalitate handiko telebista dakarkigu: zaratarik gabe, interferentziarik gabe eta irudi bikoitzik gabe.

Guztientzako Programazioa

20 telebista-kanal baino gehiago izango dituzu zure eskura: betikoak eta kanal-eskaintza gehigarri handia, era askotako edukiekin (musika, kirolak, haurrentzako, filmak, telesailak...).

Zerbitzu Elkarreragileak

LTDri esker, telebistako kide aktiboa bilakatuko zara. Hori guztia zure urrutiko kontrolarekin.

Datorren **urtarrilaren 10ean** emanaldi analogikoak bukatuko dira Bizkaian*. Telebista ikusten jarraitu nahi baduzu egiaztatu zure telebista-instalazioa LTDra egokituta dagoen, horrela ez bada, erosi deskodegailu bat edo deskodegailua duen telebista.

*Bilboko metropolia izan ezik.

Informazio gehiago: 901 201 004



URTERO 20€

Harpidetu
eta jaso UK
zure etxean,
hamabostero.
Urtero 20 euro.

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki.
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri.
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean.
Urtero argazki zahar eta barriak.
Urtero zure proiektuak lau haizetara.
Urtero 20 euro.



neuk ere gura dot